

Herririk Herri |2|

Durangaldeko gaztetxeek jaialdia ospatuko dabe bihar Otxandion

Berbaz |9|

Cáritas-Tabira: "Krisiaren eraginez harrera zerbitzua gainezka daukagu"



Ekonomia |10|

Durangaldeko ekimen ekintzaileak azaldu ditue asteen Plateruenean

Eneko Zarrabeitia herriratzeko eskatu dau udalbatzarrak

Abadiño • Eneko Zarrabeitia presoaren senide eta lagunei laguntasuna adierazten deuten eta sakabana-keta salatzen dauen mozinoa onartu dau Udalak. Independienteetako bost zingotzietatik batek mozi-noaren alde egin izanak taldearen barruan eztabaida sortu dau. **3**

Aita San Migel plaza handitzeko lanak ekainean martxan

Iurreta • Ekainean hasi gura ditu Udalak Aita San Migel plaza handitzeko lanak. 100.000 euroko aurrekontua daukan proiektuan jolasgune barria aurreikusi dabe Elixalden. Aurretik, Udaletxearen alboan zein errekaaren alboan dagozen bi etxeak bota beharko ditue. **6**

"Bizigogoa emoten deusku antzerkiak"

KULTURA • Urtebete baino gehiago emon dabe Durangoko Goratagora antzerki taldean gaur eta bihar estreinatuko daben antzezlanak presatzen. Nagusien Antzerki Jardunaldietan aurkeztuko dabe. **13**



autoak09
gehigarria

•Durangaldea

Bonboiak banatuko ditue Tabako Gabeko Munduko Egunean **2**

•Atxondo

Herriko bideen erabilerari buruzko araudia zehaztu dabe **6**

•Abadiño

Agility Lehiaketa Matienan **3**

Emakumeen Bira puntako txirrindularien erakusleiho

> Emakumeen Bira kirol elkarteak antolatu dau froga, aurten lehenengoz

> Ekainaren 11tik 14ra izango da; 11ko eta 13ko etapak lurretan lehiatuko dira **21**



Birako arduradunek atzo egin eben aurkezpena, lurretako Udalean, babesle nagusiekin batera. Judit Fernandez

Mobiliario Decoración

-%50
deskontuak

Altzarien likidazioa
erakusketa
aldaketagatik

maderlan

Bilbao etorb. 9 behea
ZALDIBAR
Tel.: 94 622 50 74
maderlan@orange.es

HERRIRIK HERRI >

OTXANDIO

Durangaldeko gaztetxeak AHTaren aurkako jaialdian

“Gaztetxeen defentsan eta AHTaren aurka”, eztabaida, herri-bazkaria, kalejira, kontzertuak eta beste hainbat ekitaldi burutuko ditue bihar



Otxandioko Gaztetxearen aurrean aurkeztu dabe asteburuko jaialdialdiko egitaraua.

Durangaldeko zazpi gaztetxeek *Partida ez da bukatu* kanpainari amaiera emongo deusie, zapatuan, Otxandion. Gaztetxeen defentsan eta AHTaren aurka “egitarau zabala antolatu dabe.

Goizeko 11:30ean Durangaldeko gaztetxe eta gazte asanbladen inguruan eztabaidatuko dabe. Eguerdian, trikipoteoa egingo dabe herriko tabernetan. Jarraian, bertaratzen direnak herri-bazkarian elkartuko dira. Bazkalostean, monologoa izango dabe. Arratsal-

deko 18:30ean *Gaztetxeak defendatuz AHT gelditu* goiburua gazte kalejira antolatuko dabe, eta ondoren ekitaldia egingo dabe.

Iluntzean ‘Playback gaztetxeroa’ izango da oholtza gainean, eta eguna behar den moduan amaitzeko, musika kontzertuak pla-

Eskualdeko gaztetxeek bihar, maiatzaren 30ean, Otxandion antolatuko daben jaialdian joateko deia egin dabe

zan, Desperdicio, Halbstarke eta Disorders taldeekin. Erronmeriarik be ez da faltako. Gaztetxeen Delirium Tren Ez! eta DJ Jean Pierre arituko dira.

Aurkezpen-ekitaldian azaldu dabenez, herri askotan “okupaziorako hautua” egin dabe, “auto-gestinoagaz aurrera eginez”. Gazte asanbladek, “oztopoak oztopo”, eskualdean antolatutako ekimenak begogora ekarri ditue, eta gazteei bihar Otxandion antolatuko daben jaialdian parte hartzeko deia egin deutsee. ■ J.G.

Urteko lehenengo Inkernuz-a herriko postontzietan banatu dabe

Herriko Euskara Plana ezagutze-
ra emotea helburu dauen Inkernuz aldizkariaren urteko lehenengo alea banatu dau Udalak herriko etxeetan. Euskararen eta bere erabileraren inguruan sortzen diren ekintzak eta barriak azaltzen dituen aldizkariaren herri-tarrak izaten dira protagonista. Aldizkariaren landuko ditueen edukia Euskara Batzordeak erabakitzen ditu, eta testu guztiak batzordeko kideen artean banatu eta idazten ditue.

Urtean lau ale kaleratzen ditueenez, “hiruhilabetekaria” dela esan leitekela azaldu deusku Manex Agirre euskara teknikariak; aurten berandu ibili ei dira lehenengoa kaleratzeko, argitu deuskunez. Hurrengo alea uztai-lean, herriko jaien aurretik, kaleratuko dabe. ■ J.G.

DURANGALDEA

Tabakorik Gabeko Munduko Eguna ospatuko dabe Durangon

Tabakorik Gabeko Munduko Eguna izango da maiatzaren 31, baina gaur egingo dau deialdiagaz bat Durangoko Merinaldearen Amakomunazgoko Drogomenpeketasunen Prebentzino Sailak. Bonboiak banatuz ospatuko dabe, “erretzea baino osasuntsuagoa” dela eritzita; gazteenen artean, barriz, piruleta eta puxiak banatuko ditue. Tabakoari buruzko informazioa eta erretzeari izteko ikastaroen barri emongo da Ezkurdin, 11:00etatik 13:30ak arte. Karbono monoxido tasa be jakin ahal izango da.

Tabakoaren eta erretzeari izteko ikastaroen barri emongo dabe gaur Ezkurdin

IZURTZA

Argazkiak lehiaketara bidaltzeko azken egunak asteen

Herriko monumentu, paisaia, bizimodu eta eraikuntzei egingo argazkiak dira Izurtzako argazki lehiaketan zehaztu daben maiatzaren 31ko mugara arte bidali ahal izan direnak. Partehartzaile bakotzak hiru lan aurkeztu ahal izan ditue gehienez, eta baldintza nagusia argazkiak Izurtzako irudiak jasotzea izan da.

Hemendik aurrera, argazkigintzako profesionalak osatutako epaimahaiaren hautuaren arabera izango da ekainaren 3an Udaletxearen izango den sari-banaketa: 600 euroko sari nagusia eta 200eko akzesit bi emongo detseez irabazleei. ■ I.E.

Geroago eta gazteago hasten dira erretzen, 11 bat urte gaz; neskak gehiago dira

Oraintsu amaitu dabe erretzeari izten laguntzeko ikastaro bat, eta irailerako eratu gura dabe bigarrena: “Urtean 30 lagun inguruk parte hartzen dabe, eta erretzeari iztea lortzen dabe hainbatek; azkenengoan, esaterako, 12k”. Bakarkako tratamendu bereziak be egin leitekez. Askatasun Etorbidera lekualdatu daben Drogomenpeketasun Saillekoen berbetan, geroago eta gazteago hasten dira erretzen: “11 bat urte gaz, eta neskak dira gehiago, pubertarora be arinago heltzen dira eta. Talde presinoak asko eragiten dau”.

Drogomenpeketasun Sailak prebentzinoa lantzen dau, eta doako arreta konfidentziala eskaini (94 620 05 20). ■ A. B.

ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

2.0 PROFESIONALAK

AURREMATRIKULA ZABALIK
EKAINAREN 1 ETIK 12RA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK
ERIZAINZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK
GOI MAILAKO ZIKLOAK
ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA
GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA
OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA

902 11 20 25 LANBIDE@ARIZMENDI.IKASTOLA.NET WWW.ARIZMENDI.EU

ABADIÑO

Zarrabeitia herriratzea eskatu dau zinegotzien gehiengoak

Zinegotzi independente baten aldeko botoari esker egin dau aurrera mozinoak. Erabaki honek ika-mika sortu dau independenteen taldean

Eneko Zarrabeitia preso abadiñarraren senide eta lagunei Udalak euren laguntasuna adierazten deuten eta sakabanaketa politika gaitzesten dauen mozinoa aurkeztu dabe martitzeneko udalbatzarrean.

Ezker abertzaleko lau zinegotziek eta Taldeko Independenten zinegotzi batek emon dabe aldeko botoa, abstenitu egin dira Talde Independenten zinegotziaren gaineko lau zinegotziak, eta kontra egin dabe EAJko lau ordezkariak.

Bost zinegotziren aldeko botoagaz onartutako testuan, Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren eskubideak aldarrikatu eta "herriko seme den Eneko

Zarrabeitia Euskal Herriratzea" eskatzen dabe. Herritik 900 kilometrotara kartzelaratuta dagoen herritarraren egoerari buruzko informazioa eskatu eta abadiñarre helarazteko konpromisoa hartu eta "Euskal preso politiko eta iheslariak etxera" dinon bandera ipini daiala Udalak be jastzen dau zinegotzien gehiengoak onartutako adierazpenak.

350 abadiñarren babesa islatzen daben horrenbeste sinadura aurkeztu zitueen martitzeneko udalbatzarrean

"Bozka partikularra"

Abadiñoko Independenten artean zinegotzi batek mozinoari baietza emon izanak ezinegona sortu dau taldekideen artean. Mozinoaren aldeko jarrerak gehiengoalortzea ahalbidetu eban zinegotziarena "bozka partikularra" izan dela eta taldearen jarra abstentzinoa dela dino Jose Luis Navarro alkateak: "udalerriaz gairik ez positibitatez da gure filosofia, eta taldekide guztiek onartu behar dabe hori", aurreratu dau.

Edizino honen itxieran Talde Independentea batzartuta zegoen gai honen inguruan eztabaidatzeko. ■ I.E.



Luis Miguel Kanalaetxebarria zinegotzi independentea, eskuman, mozinoa babesten. Iban Gorriti

Lehenengo Agility Lehiaketa asteburuan

Maiatzaren 30 eta 31n, Traña-Matienako futbol zelaia zenean izango dira froga puntuagarriak

Estatuko 25 txakur izango dira bihar eta etzi Abadiñon antolatutakoen agility probetan parte hartzen. Antolakuntzak presatutako ibilbideetatik igaro beharko dabe Traña-Matienako hareazko futbol-zelaia zenean. Igaz erakustaldia egin eben, eta aurtan lehiaketa, lehenengoz.

Axular Casado zaldibartarra arituko da asteburuko probetan parte hartzen

Udaleko zinegotzi Marisa Vázquezek eta lehiaketan parte hartzaile izango den Axular Casado zaldibartarra egin dabe hel-

buru nagusi "kirol hau herritarrei ezagutzera emotea" dauen Agility lehiaketaren aurkezpena. Zapatuan, 15:30ean hasita eta domekan goizeko 09:00etatik 13:00ak arte izango dira probak: jauziak, tunelak, slaloomak eta abar igaro beharko ditue 25 txakurrek.

Tartean Agility probak aurkeztu izan den Axular Casadoren Border Collie arrazako Arin eta Tami txakurrak izango dira, lana ahalik eta azkar eta ikusgarrien egiten. Casadok berak nabarmendu dauenez, batez be txakurrak bizkorak direnean dira Agility erakustaldi eta lehiaketak ikusgarri. ■ I.E.

MALLABIA

Jasokunde abesbatza 'Oh Happy day bidean'

Mallabiko abesbatzako neskek bigarren casting saioan parte hartuko dabe domeka honetan

'Oh Happy Day 2' saioan parte hartzeko 'OHD 2dean' izeneko castinga martxan jarri dau ETB1ek. Programaren lehenengo edizioak izandako arrakasta ikusita, ETBko arduradunek bigarren txanda martxan jartzea erabaki dabe. Kasu honetan, casting fasea izango da lehenengo emitituko dabena.

Lehiaketan aurrera egiteko mallabitarrek Maixa Lizarribar (Maixa eta Ixiar), Joxe Mendizabal eta Iñigo Arbiza epaimahakideen aldeko balorazioa lortu beharko dabe.

Kanporaketen lehenengo fasean parte hartuko dau domekan Jasokundeko abesbatzak. Saio horretan parte hartuko daben zazpi taldeetatik bat kanporatu egingo dabe. Joan zen domekan sailkatutako beste sei abesbatzekin hurrengo faserako sailkatuko dira. ■ P.M.

Domekako saioan parte hartuko daben zazpi abesbatzetik sei aukeratuko ditue lehiaketarako

ERMUA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Informatika Aplikazioen Garapena
- Informatika Sistemen Administrazioa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mikroelektronika eta sare informatikoak (A eta D ereduak)

Aurrematrikula zikloak:
ekainaren 1etik ekainaren 12ra
A eta D ereduak

EIBAR

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazio eta finantzak
- Nazioarteko Merkataritza
- Gorputz eta Kirol-ekintzen Sustatzea

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazio Kudeaketa
- Merkataritza

Unibertsitatea

Ongarai Auzoa - 48260 ERMUA
Tel. 943 17 62 57
Faxa: 943 17 64 50
E-mail: uni@iesunibhi.com
www.iesunibhi.com

Unibertsitatea

Otaola Hiribidea, 29 - 20600 EIBAR
Tel. 943 20 84 44 / Faxa: 943 20 31 96
E-mail: uni@iesunibhi.com
www.iesunibhi.com

MAÑARIA

Kultur Etxea izango deneko teilatuko lanak hasi ditue asteen

Espainiako Estatuko Inbertsino Fondoaren diru-laguntzagaz finantzatuko dituen Kultur Etxeko teilatuaren konponketak egiten hasi dira langileak aste honetan. Udalean jakinarazo dabenez, hila-beteren buruan itxaroten dabe lanak amaituta egotea.

Gaur egun jubilatuen egoitza eta bulegoak eta Errekondo taberna-jatetxea hartzen dituen eraikinaren teilatua barritzatzeko Estatutik jasotako diru-laguntza 83.000 eurokoa da, eta horixe da lanek eragingo daben gastua be.

Kultur Etxea guztiz martxan jarri baino lehenago, oraindino konponketa eta egokitze gehiago egin beharko direla aurreratu deuskue Udalean; behin teilatua konponduta egitekoak hainbat direla aitatutako eraikinean. ■ I.E.

83.000 euroko diru-laguntza jaso dau Udalak Estatuko Inbertsino Fondotik

Hilabeteren buruan lanak amaituta egotea itxaroten dabe udal arduradunek



Baserrian landutako barazki eta fruituz beteta izan ziren domekan erakusmahaiak. Judit Fernandez

Domekako salmentagaz gustura dira erakusle eta antolatzaileak

Goizean zehar azoka eta eguerdian herriko dantzarien emanaldia izan ziren

Domekako Mañariko XIV. Nekazaritza eta Artisautza Azokan orokorrean izandako salmentagaz oso gustura geratu ziren postuak ipini zitueen nekazari eta artisauak.

Eguraldiak nahikoa lagundu eban goiz guztian zehar, eta, antolatzaileen berbatan jaso

Eguraldiak nahikoa lagundu eban goizean, eta herritar asko gerturatu zen herriko plazara osteratxo egitera

dogunez, hainbat jente hurreratu zen herriko plazara. Adela Andikoetxearen barazki postuak jaso eban azokaren harira antolatzen daben lehiaketako lehenengo saria (170 euro), Edurtzeta Atutxak bigarrrena (110 euro) eta Isasi Txakolindegia jaso eban, azkenik, azokako hirugarren saria (75 eurokoa).

Azokaren inguruan antolatutako bestelako ekitaldietan be parte-hartze nabaria izan zela aitatu deuskue Udalean: eguerdian, herriko emakume eta nesken dantza taldearen herriko plazako emonaldian eta umeentzako artisautza tailerretan be lagun asko batu ei zen parte hartzera.


Giro ederrean

Arratsaldean frontoian Mañariko Pilota Eskolak antolatuta programatuta zegoen pilota partiduen inguruan be giro ederra zela nabarmendu dabe antolatzaileek, eta, batez be, pilotari profesionalek ikusmin handia sortu ebela herriko eta eskualdeko zaleengan.

Ahuntz azpigorrien XII. monografiakoaren sariak eta herriko argazki lehiaketakoak be banatu zitueen egun berean. Egun betea izan zen domekako; datorren urtean errepikatzeko modukoa, antolatzaileek dinoenez. ■ I.E.

Umeendako artisautza tailerrak antolatu zitueen eta ahuntz azpigorrien XII. monografiako egin eben

Mañariko Pilota Eskolak antolatutako pilota partidua jokatu ziren arratsaldean, eta giro oso polita sortu zen



PINTURA LEHIAKETAREN ERAKUSKETA
Maiatzaren 30tik ekainaren 14ra
Ezkerreko Udal Argita
Ondulaga, 18:00 - 20:00
Antzerkietan: 12:00 - 14:00/18:00 - 20:00

MAIATZAK 29, OSTIRALA

19:00 ESKU PILOTA JAIALDIA
DURANGOKO PILOTAZALE ELKARTEA
Ezkerreko Udal Argita
20:00 ABESBATZEN KONZERTUA
AMILLERA, BONGOCITSE eta BARTOLOME
ERTZILLAKO ABESBATZAK
Santa Ana Eliza

MAIATZAK 30, LARUNBATA

09:00 V. MARGO LEHIAKETA AIRE LIBREAN
DURANGALDEKO ARTISTEN ELKARTEA
Izan emaria: Ezkerreko Plaza
Ezkerreko Udal Argita
18:00 KALEKO MARGO LEHIAKETAREN
SARI BANAKETA
Ezkerreko Udal Argita
18:30 VIII. "EUSKAL ASTEA" ZESTA PUNTA
TXAPELKETAREN SEMIFINALA
EZKERREKO JAI-ALAI ZESTA PUNTA ESKOLA
Ezkerreko Udal Argita
19:30 XXVII. EUSKAL DANTZEN JAIALDIA
ZUBEROA, LAPURDI, BIZKAI: DURANGOKO TRONPERRI DANTZA TALDEA
Andia Mariako Eliza

EKAINAK 2, ASTEARTEA

10:00 IIMEN EUSKAL JOKU TRADICIONALAK
LANDAKO ESKOLA
Landako Poliklinika

EKAINAK 3, ASTEAZKENA

20:00 IMENI ERREPORTAJEA eta HITZALDIA
"DIALAGIRI-MANASLU" Alex Txikon
ALPINO TABIRA BIKOTZALE TALDEA
San Agustin Kultur Gunea

EKAINAK 4, OSTEGUNA

09:15 UMEENTZAKO ZINOA:
"BARRIOA, SAN ADRIANO AZERIA"
BURUTZIAGA BASTOLA
Zugaza Zine Aretoa

EKAINAK 5, OSTIRALA

09:30 ARTZAINZAREN INGURU
HERRI KIROLAK
SAN JOSE JESUITAK IKASTETXEA
Andia Mariako Eliza
20:00 OPERETA "AUTONAREN URTEBETZEA"
"Das Nussknacker" Operaren moldaketa (J.X. Sotomayor)
Bardone Ertzillako Orkestra, abesbatza eta
Kantakor Basilek eta Karamel Abesbatza
BARTOLOME ERTZILLA MUSIKA ESKOLA
Santxa 11
San Agustin Kultur Gunea

EKAINAK 6, LARUNBATA

12:00 BERBALAGUN JAIA:
KALEJIRA TROKILARIKIN
LEIAL EUSKALTEGIA, BE. HIZKUNTZA
ESKOLA eta BERBARI
Santa Ana Plazatik Sate Antzerkietan
14:00 BERBALAGUN BAZKARIA
Rafael Antzerkia
18:30 VIII. "EUSKAL ASTEA" ZESTA PUNTA
TXAPELKETAREN FINALA
EZKERREKO JAI-ALAI ZESTA PUNTA ESKOLA
Ezkerreko Udal Argita
20:00 OPERETA
"AUTONAREN URTEBETZEA"
Santxa 11
San Agustin Kultur Gunea
20:15 UGABERRIKO KONZERTUA
DURANGOKO ORFEOA, ZERUOKO
ABESBATZA eta TRAPAGARAN ABESBATZA
Santa Ana Eliza

EKAINAK 7, IGANDEA

12:00 JULENE AZPETA LEHIAKETAREN
SARI BANAKETA
San Agustin Kultur Gunea
12:30 XXVII. EUSKAL DANTZEN JAIALDIA
GIPUZKOA, ARABA, NAFARROA
TRONPERRI DANTZA TALDEA
Andia Mariako Eliza

EKAINAK 11, OSTEGUNA

20:00 "OHEAN" ANTZERKO SAIOA
MASKARADA ANTZERKO TALDEA
Santxa 11
San Agustin Kultur Gunea

EKAINAK 13, LARUNBATA

09:15 ENRIKOKARA URTEERA
BERBALAGUN
Txartelak: 639 400 786
19:00 KALEJIRA
TABIRA MUSIKA BANDA eta
ELGOIBARKO DANTZAINEROAK
19:30 KONZERTUA
TABIRA MUSIKA BANDA eta
ELGOIBARKO DANTZAINEROAK
Andia Mariako Eliza
20:00 "DURANGO HIPA"
V LEHIAKETAREN SARI BANAKETA
1. zaila: TXISTU KONZERTUA
2. zaila: DUO ICEBERG (Pia eta piano)
SILBODERRI TXISTUZALE ELKARTEA
San Agustin Kultur Gunea

EKAINAK 14, IGANDEA

11:00 / 14:00 NEKAZARITZA AZOKA
Merkatu Plazaren inguruetan
12:00 KALEJIRA: DURANGOKO TRONPERRI eta
PANDOKO ESKOLAK BARTOLOME ERTZILLA
MUSIKA ESKOLAKO TXISTULARIAK, JAZZAL
DURANGALDEKO TXISTULARI ELKARTEA,
TXISTU ALAI TRONPERRI eta KOKETIKO
DANTZA TALDEA

KONFIDANTZA

merkatuan daramatzagun 40 urteetan - frogaturiko gure profesionaltasunean - salmenta ondorengo gure zerbitzuan
bezeroarekiko arretarako gure gunean - Bautista altzari eta dekorazioko pertsonengan
2008ko MERKATARITZA SARI NAZIONALAGATIK

BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACION
LUODIO - ABADIÑO

www.bautistamuebles.com

egongelako altzariaren prezioa eskua ordainduta:

1.600,00 €

egongelako altzariaren prezioa finantzatuta:

sarrera:

475,00 €

lehenengo ordainketa 2009ko abuztuari:

9 ordainketa:

125,00 €

3 m-KO EGONGELAKO ALTZARIA. BESTE HAINBAT OSAKETA ETA AKABATU AUKERAN

logelako altzariaren prezioa eskua ordainduta:

1.036,00 €

logelako altzariaren prezioa finantzatuta:

sarrera:

325,00 €

lehenengo ordainketa 2009ko abuztuari:

9 ordainketa:

79,00 €

OHE OSOA ETA BI MAHAITXO BARNE. BESTE HAINBAT OSAKETA, NEURRI ETA AKABATU AUKERAN

DIURRETA

Ekainean hasiko ditue Aita San Migel plaza handitzeko lanak

Etxe bi eta oinezkoendako zubi zaharra botako ditue, eta umeendako jolasgunea jarriko dabe

Aita San Migel plaza handitu eta barrizatzeko lanak ekainean hasiko ditue. Halan jakin eragin dau Iñaki Totarikaguena alkateak, eta horretarako, 100.000 euroko inbertsinoa egingo dau Udalak. Horregaz batera, Elixalden 100 metro koadroko jolasgunea egokituko dabe (60.000 euro). Sanmigeletarako “itxuraldatuta” egongo da plaza.

Aita San Migel plaza handitzeko lanetarako 100.000 euro erabiliko ditue; jolasgunea jartzeko 60.000

Aurretik, baina, bai Udaltxearen alboan dagoen etxea bai errearen albokoa —oinetkoendako zubiaren parekoa— bota beharko ditue. Elixaldeko etxebi-

zitzen enpresa sustatzailea arduratuko da horretaz. Udalakemon dit hile bian egin beharreko lanok, oraingoa ordezkatzeko dauen oinetkoen zubi barria be jaso; jolasgunerantz mugituko dabe. Obra zibila eginda dagoen arren, jolaserako tramankuluak lanak amaitzean jarriko ditue.

Plazaren urbanizazioagaz koordinatuta eroango ditue zubi-ko lanak eta Dantzariaren irudia be lekualdatuko dabe, Udaletxearen albora. Abadetxearen atzealdeetik erreka albo guztia atonduko dabe plazarentzat 400 metro inguru irabaziz. Altzairuak barriztu eta argiteria “moderno eta eraginkorra” be jarriko dabe; errekarako hormigoizko barandaren lekuan aluminiozkoa ipiniko dabe. “Inguru atseginagoa” sortu gura dabe plazari “uniformetasuna” emonez. ■ A.B.



Aita San Migel plazak 400 metro koadro inguru irabaziko ditu hirigintza-lanak amaitzean. A.B.

Ehunka lagun batu zituen Ardo eta Okela Egunak beste behin be

Goizean hurreratu zenik izan zen, baina, batez be, eguerdi bueltan hainbat bisitari batu zituen, joan zen zapatuan, Iurretan, VI. Ardo eta Okela Egunak. Ehunka lagun bertaratu zen Arabako Errioxako 10 upategiek eskainitako ardoak dastatu guran. Burduntzian erretako bildots pintxoak be eskaini zitueen, gainera. Aurten, 40 bildots erre zitueen —igaz baino bi bider gehiago— eta aurreikusitako denpora baino lehenago agortu ziren pintxo guztiak.



J. Fernandez

DIATXONDO

Herriko bideen erabilera arautzeko ordenantza

Erabilera eta kontserbazinorako baldintzak zehazten ditu onartutako arautegi barriak

Udalak errepide askoren jabetza eta horrek dakarren ardura daukalako eta gaia arautzen dauen ordenantzarik orain arte egonez delako ikusi ei dau errepideen erabilera arautzen dauen ordenantza sortzeko beharra Gobernuak.

Herrigunetik kanpokoak izan arren Udalaren karguak diren errepideen egoerari eta bertatik igarotzen den kamioi kopuru gehiegizkoari jagokezen hainbat kexa jaso izanak be bulztatu ei ditu arautzera.

Erabilera eta kontserbazinorako —udal jabetzako errepideak egoera onean mantentzea

da helburuetako bat— baldintzak zehazten ditu ordenantzak; gainera, aurrerantzean, ibilgailu berezia edo joan-etorrietarako baimen berezia daukienek tasak ordaindu beharko ditue errepideak erabiltzeagaitik. Arriskuak izan leitekezen edo pisu eta tamaina bereziko ibilgailuek baimen bereziak eskatu beharko ditue, beraz, Udalean. ■ I.E.

Errepideen egoerari buruzko hainbat kexa jaso izana ei da araua sortzeko arrazoia

DIAGARAI

Jaiak antolatzeke batzarrak hasi ditu Trumoitte kultur elkarteak

Jaien prestaketan murgilduta dabil, dagoeneko, Garaiko Jai Batzordea. Atzo bertan egin eben bilera, eta ekimen batzuk zehazten hasi dira.

Uztailaren 24an hasita, jaietan burutuko diren ekitaldien artean herri-bazkaria egitea aurreikusi dabe antolatzaileek, baina denpora falta dela-eta, “beharbada, jaiak abuztuaren 1a arte” luzatuko ei ditue, Trumoittekoek dinoenez. Jaietaz aparte, urtean zehar hainbat ekimen prestatzeko asmoz sortu eben elkarte, eta batzarra deituko dabe laster herritarrei euren asmoen barri emon eta parte hartzera animatzeko. ■ M.O.



1.866

RELOJERIA Y JOYERIA

Mercedes Mancisidor

ANDRA MARI, 8
TEL.: 94 681 33 13
DURANGO-BIZKAIA

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA, 8
TEL.: 94 681 91 09
DURANGO-BIZKAIA

ZURE HERRIKO
BITXIA



▣ ZALDIBAR

Liburu trukerako azoka egin dabe asteen Herri Liburutegian

Aste honetan zehar, gaur arte, izan da Udal Liburutegian liburuen trukaketa proposamena. Etxe askotan dagoeneko irakurrita eta apalean pilatuta dagoen liburua beste herritar batzuekin trukatzeko aukera eskaintzeko helburuz ipini dabe ekimena martxan; etxetik liburu bat eroan eta liburutegian trukekoa hartu.

Etxean irakurrita eta apalean pilatuta dagoen liburua berrerabiltzeko proposamena

Denetarikoa adin eta gustuko jendearentzako liburuak bildu ditue liburutegian

Jenteak eroandako liburuekin azoka bat egin dabe, eta askotariko liburuak batu eta trukatzeko aukera ipini ditue. Genero askotako liburuak, gustu guztiak asetzeko modukoak batu ditue Herri Liburutegiko azokan. Adin guztietako lagunaren intereseko izan leitekezen liburuak herritarren eskura ipini ditue. Liburua mailegatze-ko, trukean beste bat ekartzea izan da baldintza bakarra. ■ I.E.

▣ DURANGO

Segurtasun neurri gehiago eskatu ditue Astarloako langileek

Astarloa zaharrendako egoitza eta jubilatuen etxea –beste zerbitzu batzuen artean– dagoen eraikinean, gauez eta inork zelan ez dakiela, gizon bat sartu-irtenean dabilela eta, eskaileratan bat-batean azalduz ezustek eragiteaz batera, urtarrean langile bat erasotu ebala salatu dabe Astarloako beharginek.

Eraikinera sartu-irtenean dabilen gizon batek langile bat erasotu eban urtarrean, Astarloakoek salatu dabenez

Urte hasikeratik hona enpresako arduradunekin zein Udalgaz batzartu dira neurriak hartzeko eskatuz. Udalak tunelean gau osoan funtzionamenduan dabilzen argi finkoak ipini ditu, baina neurri hori ez da nahikoa, gizonak bardin darraielako sartu-urtenean.

Ondorioz, Astarloako langileak sinadurak batzen hasi dira nagusien eta euren senitatekoen artean, gero udaletxean aurkezteko. Ertzaintzak beidentifikatuta eta fitxatuta dauka, baina ezin ei dau beste neurririk hartu. ■ J.D.



Jaialdira bertaratu ziren guztiek elkarregaz abestu zitueen eskauten hainbat kanta. Judit Fernandez

Lagun artean ospatu ditue 25 urte Inurriko eskautek

Landako erakustazokan ospatu eban urteurren jaia Inurri eskaut taldeak

80ko hamarkadan Jesuiten ikastetxean jaio zenetik bidelagun izandako guztiak batu gura izan ditu Inurri eskaut taldeak 25. urteurrenean. Makinabat batzea lortu eban Landako erakustazokan ospatutako jaialdian. Musika eta dantzarako tartea hartu eban bertaratu zirenek, 25 urte honeetako hainbat pasadizo eka-

rri zitueen gogora eta lagun arteko bazkaria be egin eban.

Urte guztietako lana ospatu eta Inurri ezagutarazo gura izan dabe jaialdiagaz; baita belaundien arteko elkarguneak sortu eta taldea indartu eta motibatu be, azaldutakoaren arabera. Aurrera begira, Boluntariotzaren Nazinoarte Egunagaz bat eginda

Boluntariotzaren Astea bultzatu gura dau Euskal Herriko eskauten barruan dihardueen Inurrik erakundeekin elkarlanean. ■ A.B.

Besteak beste, urteotako lana ospatu eta eskaut taldea ezagutarazo gura izan dabe

- **DBH (B eta D ereduak)**
- **GELA EGONKORRA (B eta D ereduak)**
- **BATXILERGOAK**
 - Arteak (D ereduak)
 - Giza eta Gizarte Zientziak (A eta D ereduak)
 - Zientziak eta Teknologia (A eta D ereduak):
 - Zientzia eta Teknika
 - Osasun - Zientziak
- Aukera: Hirueleduna ingelesez*
- **ZEREGIN IKASKUNTZARAKO GELA**
- **HEZIKETA ZIKLOAK**
 - Erdi mailakoa:
 - Landa Ingurune Gorpuz eta Kirol Ekintzen Gidaritza (D ereduak)
 - Goi mailakoa:
 - Gorpuz eta Kirol Jardueren Animazioa (D ereduak)
- **ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZAK**
 - Kirol Irakaskuntzak:
 - Mendi Kirolerako eta Eskaladako Teknikariitza (Arratsaldeetan)
 - Beste modalitate berri batzuk

AURREMATRIKULAZIO DATAK

Heziketa Zikloak:

ekainaren 1etik 12ra

Frai Juan de Zumarraga, 23 • 48200 DURANGO (Bizkaia)

Tel.: 94 657 10 60 - 94 681 73 25 • Fax: 94 681 02 58 • e-posta: info@durangokoinstitutua.com • web: www.durangokoinstitutua.com

ELORRIO

Udal lurrak zehazteko inbentarioa egingo da

Udalak herrian zer lur jabetza daukazen zehazteko asmoz, inbentarioa egingo dabe 18 hileko epean

Udalaren jabetzakoak diren lurrak zehaztu, zenbatu eta batuko dituen inbentarioa egingo dau Udalak. 18 hilabete iraungo dau azterketa horrek. Udal-bideen inbentarioa egin barri dabe, eta asmo beragaz ekingo deusie lurrena egiteari. Horretara, etorkizunean lurren jabetza-aren inguruan sortu leitekezen gorabeherak konpontzeko txosten dokumentatua oinarritzeko modua edukiko dabe.

Inbentarioa osatzeko lurren jabeekin berba egin eta erregistroa arakatuko dabe

Etorkizunean lurren jabetzen inguruan sortu leitekezen ezbaiak konpontzeko oinarri dokumentatua izango da

Niko Moreno alkateak argitu dauenez, "jabetza batzukez dagoz dokumentatuta, eta badagozen batzuen jabetza ez dago hartuta"; esaterako, Argiñeta ermitaren ondoan zonalde publiko bat dago baina ez dago argi eremu horren jabetza Udalarena ala kofradiarena den. Inbentarioak holako kontuak eta antzekoak argitzea ahalbidetuko dau.

Txostena osatzeko lanak jardunbide bi daukaz. Batetik, lurjabeekin berba egin eta euren testigantza jasoko dabe; bestetik, erregistroan dagoen artxiiboak aztertu beharko ditue.

Bideekin kexa gitxi

Bideen inbentarioa egin orduan, azaldu dabenez, uste eben baino eztabaida gitxiago sortu da. Bihiru kasutan bakarrik agertu dira Udalak egindako balorazioagaz desadostasunean. Gainerakoan ez dabe kexarik jaso. ■ J.D.

Uztaileko herri kanpamenduak prest, eragile askoren lanagaz

Udalaren eta askotariko eragileen ekimenekin, prest dago 2009ko 'Uztaila Opar' programa. Udalak antolatutako herri-kanpamenduan izena emoteko epea ekainaren 5a artekoa da. Aukerabi dagoz; ekainaren 29tik uztailearen 10era, eta ekainaren 29tik uztailearen 24ra (09:30-13:30).

Elorrioko Yes akademiak ingelesa praktikatzeko aukera eskainiko deutse ekainaren 29tik uztailearen 13ra (10:00-13:00) 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek.

Lourdesko Ama ikastetxeak 'Kirola eta osasuna' gaiak landuko ditu uztailearen 1etik 29a arteko kanpamenduan. Intxorta asti taldeak, barriz, kanpamendu finkoa antolatu dau: uztailearen 6tik 17ra Nafarroako Lezaun herrian.

Gaztetxeak 'Amalurra defendatu' izenagaz hainbat ekintza egingo ditu: espeleologia eta orientazio tailerrak, hitzaldiak, puentinga... Iturrik film laburren ikastaroa antolatu dau, eta 'Zaldi beltz' izeneko ikastaroa be antolatu dau.

DURANGALDEA

'Berbalagun bazkaria' laster

Euskaraz mintzatzeko bazkaria antolatu dau Durangaldeko Berbalagunek datorren ekainaren 6rako. Goienkalen hasiko den triki-poteoagaz hasiko dabe eguna, 13:30ean, eta Platerue-na kafe antzokian bazkalduko dabe, 14:30ean. Halan azaldu dabe Berbalaguneko arduradunek. Bazkalostean kantaldia izango dabe. Berbalagun bazkariok zabalak direla gogorarazo dabe antolatzailleek, eta "euskaraz jarduteko gogoia baino ez" dela behar. AEK euskaltegietan zein Udal Euskaltegietan emon leiteke izena, albait arinen, nabarmendu dabenez. Honako telefono honetara be deitu leiteke: 639 400 786.

DURANGO

Ekaineko zapatuetan Lariz Torrea bisitatzeko aukera

Turismo Bulegoa hartuko dauen Lariz Torrea zaharbarritzeko lanak amaituta, ekaineko zapatuetan bisita gidatua egiteko aukera eskainiko dabe.



Gasteizen dagoen EHUKo Letretako fakultateko Arkeologia Saileko irakasle Belen Bengoetxearen lanen edukia erabiliko ditu Iasmina Gorroñogida turistikoak; Historian lizentziatua da eta ikerketan parte hartu eban. Hiri Arkeologian espezializatua den Bengoetxeak eta Lariz Torren egindako eskuhartze arkeologikoa zuzendu eban, besteak beste. Izena emon behar da (94 603 39 38).

ABADIÑO

Berdintasunerako Gunearen baitan jardunaldia eratu dabe

Datorren ekainaren 4an hasi eta 21a bitartean VI. Berdintasunerako Gunea jarriko dau martxan Emakundek, eta horregaz bat eginez Abadiñon Emakumeen Jabeakuntzarako Eskola erakitzeke oinarriak finkatzeko asmoz jardunaldiak antolatu ditue. *Zer da jabeakuntza?* izenburupean antolatu dabe lehenengo jardunaldia, ekainaren 11n 17:00etan, Errota kultur etxean. Neus Albertos izango da hizlari. Ekainaren 17an, barriz, Bizkaiko Jabeakuntza Eskolen Sarearen aurkezpena egingo dabe. Errotan izango da hori be, ordu berean. Sare horretako ordezkari batek azalduko ditu esperientzia horren nondik norakoak.

OTXANDIO

Zuzendaritza Batzorde barria dauka Pasealeku elkarteak

Pasealeku jubilatuen elkarteko Zuzendaritza Batzorde barria lanean hasita dagoeneko. Bigarren urtez lehendakari karguari eutsi deutso Pilar Azkorbebeitiak, eta, beragaz jarraituko dabe Marisa Artazak eta Toña Acerak. Halantxe jakin eragin dabe Pasealekuko arduradunek. Bestalde, elkarteko zuzendaritza batzordekide izateari iztea erabaki dabe Markos Unzaluk, Karmele Langarikak, Nikolasa Azkorbebeitiak eta Pepita Bengoak. Horreen ordeztatu dira Irune Urigoitia, Marina Soloeta, Karmen Soloeta eta Petra Uribe. Elkarteko 200 bazkideentzat urteko ekintzak antolatzeko ardura daukie, besteak beste.

BERRIZ

Udan Berbarogaz ibiliko diren begiraleek ikastaroa egin dabe

Euskara elkarteen eta euren helburuen barri jakin dabe, besteak beste

Berbaro euskara elkarteak udalekuak antolatuko ditu udan. Ildo horretatik, udaleku horreetan begirale lanetan jardungo daben 74 gaztek formazio ikastaroa jaso eben asteburuan Berrizko aterpetxean. 2006tik 2008ra be egin zitueen, baina egun bakarrekoak.

Ikastaroak begiraleek elkar ezagutzeko eta udako udalekuetako programazioa osatzeko be balio izan dabe

Ikastaroko helburuen artean honako honeek dagoz: aisialdi ekintzek heziketan daukien garrantziari buruz jardutea eta eremu hori lantzea, begiraleek elkar ezagutzea, udako programazioa prestatzea eta euskara elkarteen helburuak azaltzea.



Berbarogaz jardungo daben 85 begiraleetatik 74k parte hartu dabe ikastaroan. Berbaro

BERBAZ >



Mari Puy Inzunza•

Esther Bilbao•

• Cáritas -Tabirako kideak

“Gizartean eragiteko, krisiaren biktimei aurpegia jarri deusegu”

‘Justizia eta alkartasuna’ jardunaldien bitartez Cáritas-Tabirak krisiaren eragina ezagutzera emon gura dau

Krisiak eragiten dituen egoera latzak bertatik bertara ezagutzen ditu Cáritas-Tabirak. Egunero laguntza eske joaken jentetza-ri erantzun ezinik dabilz azken hilabeteotan. ‘Zaintza’ proiektua martxan jarri dabe orain, etxe-zerbitzuan eta adinekoen zaintzan jardun gura dabenei laguntzeko. Mari Puy Inzunza eta Esther Bilbaogaz Cáritas-Tabiraren zerbitzuen barri izan dogu.

Asteon egindako ‘Justizia eta alkartasuna’ jardunaldietan krisiaren ‘biktimei’ buruz berba egin doazue.

Esther Bilbao. Krisia dela-eta zelako errealitatea bizitzen gabilzen salatu gura dogu, eta injustizia hori mahai gainean ipini.

Mari Puy Inzunza. Batzuk beti egon dira krisian, beraz, horreek beharrezko izaten jarraitzen dabe, baina badakie zer den estuasunak pasatzea.

Aldiz, orain dela urtebete egoera ekonomiko onean zegoen familiak orain ezin dabe hipotekarik eta umeen eskolarik ordaindu... Gastuen maila kasu, askotan, orain arte ez da behar beste neurtu.

Beraz, Cáritasera laguntza eske doazen pertsonak perfil askotakoak dira.

E.B. Bai, denak ez dira etorkinak, ezta gitxiago be. Krisiaren eraginari buruz asko berba egiten da, baina gizarteak ez dau ikusi gura egoera erreala zein den. Asteon egin doguzen jardunaldiekin krisiari aurpegia jarri gura izan deusegu.

Harrera zerbitzura doazenei zer arazo izaten dabe?

M.P.I. Igaz 600 lagun etorri ziren harrera zerbitzura laguntza jasotzera. Arazo nagusiak lan eta etxebizitza falta dira. Beste batzuk diru eske etortzen jakuz, baina horren atzean arazo ugari egoten dira: drogak, alkoholismoa eta abar.

Zaintza zerbitzua indartu gura doazue.

M.P.I. Harrera zerbitzua orain 8 hilabetetik martxan da, eta 300 lagun etorri jakuz. Formazioa eskaintzeko zerbitzuko bigarren txanda, barriz, laster antolatuko dogu Kanpatorros-tetako elizetxean.

Zein da ikastaro horren helburua?

E.B. Etxe-zerbitzuan eta adinekoen zaintzan formazioa emotea. Harreran jente asko geunkan etxeetan lan egiteko eskatzen.

Zer erakusten doazue?

M.P.I. Elikadura, garbiketa, osasuna, etxeko lanak... Katekista bi dabilz zerbitzu horreetan, bolondres. Azkenengoz egin dogun txandan hamar lagunek parte hartu dabe.

Bertaratzen direnen laneratzean bitartekari be egiten doazue.

E.B. Bai. Oinarritzko irizpide batzuk ezartzen doguz, pertsona bat behar dauenaren eta

lana behar dauenaren artean. Lan horreei duintasuna emon gura deusegu. Igaz 112 lan eskaintza izan genduzen eta 45 lanpostu sortu ziren.

Krisiaren eragina etxe-zerbitzuan nabarmena da, beraz.

M.P.I. Pertsona asko lan barik edo enplegu-erregulazioan dagoenez, ez dabe inor behar etxean. Dena dela, krisiaren eragina askoz sakonagoa da.

Beste zerbitzu batzuk be eskaintzen doazue.

E.B. Ekorropa zerbitzua daukagu Artekaleko dendan. Sentsibilizazio kanpainak be egin doguz.

Udaleko gizarte zerbitzuekin hartu-emonik badaukazue?

E.B. Hartu-emon estua dauko eta emoten deuskuen diru-laguntza oso garrantzitsua da. Guztion lana osagarria da. Instituzinoek, barriz, euren denpora behar dabe erantzuteko.

■ Jone Guenetxea

“Igaz, Cáritaseko harrera zerbitzura 600 pertsona etorri jakuzen”

“Krisiak eragindako errealitatea emon gura dogu ezagutzera”

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Aukera barriak eskainiko ditu Zornotza GLHBk

Hainbat ikasgela eta tailer batzen ditu 5.141 metro koadroko eraikin barriak

Zornotzako Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutuak egoitza barria dauka, formazino eskaintza zabalatzeko aukera emonez. 08/09 ikasurtean, IES Urritxe-Zornotza BHI banatzean hasi eban ibilbidea, eraikin barrian, Zornotza GLHBk: Urritxe BHIk DBH eta batxilergoa hartuko dau, eta formazino zikloak Zornotza GLHBk. Eraikin barriak formazino eskaintza osoa euskaraz eta gazteleraz eskaintzea bideratuko dau, goi mailako ziklo barria eskaintzeko aukera ez eze: *Eraikuntza metalikoak*.

Formazino iraunkorreko zein lanbide heziketako ikastaro gehia-

‘Eraikuntza metalikoak’ goi mailako ziklo barria eskainiko dabe hemendik aurrera Zornotza GLHBk

Formazino iraunkorreko eskaintza zabaltzeko aukera izan dabe

go eskaintzeko aukera be emongo dau, gainera, 5.141 metro koadro hartzen dituen eraikinak. Bertan, soldatzeko tailer bi egokitu ditue —400 metro koadro hartuz— eta aurretik ez zegoen metrologia tailerra egokitu dabe. Era berean, odontologia tailer bat gehitu dabe *Erizaintzako laguntza osagarriak* erdi mailako zikloan; informatika gela, bestalde, 25 metro koadrotik 60ra zabaldu dabe. *Merkataritza* erdi mailako zikloak teoriarako gela ez eze tailerra be badauka orain.

Liburutegia ia hirubidertu egin dabe eta zuzendaritza zein harrera guneak egokitu. ■ A. B.

Enpresa txiki eta ertainei begirako jardunaldiak Behargintzan

Enpresa txiki eta ertainei begira hainbat jardunaldi egingo ditu ekainean Bilboko Merkataritza Ganbarak Durangaldeko Behargintzagaz. *Segurtasuna komertzioan: prebentziozko ezarpena* izango da lehenengo jarduera, ekainaren 3an, 13:30ean.

Jatorri-ziurtagiriak egiteko Arautegi berria jardunaldia antolatuko dabe ekainaren 11rako, eta hilaren 26an *Berrikuntza agentziak* azalduko ditue. Hurrenez hurren, 09:00etatik 10:30era eta 09:00etatik 11:30era izango dira. Durangaldeko Behargintzan izango dira jardunaldiak eta ize-na emoteko helbide elektronikoa edo telefonoa erabili leiteke: pymes.mdurango@bizkaia.org / 94 623 25 22. ■ A. B.

■ kolaborazinoa



Jabier Meruelo
CNT sindikatua

Greba

“Euskadik ez du grebarako garaia” zioen Andoni Ortuzar BBBko presidentek. Eta noiz izango da, orduan? Oso erraza da hitz egitea lasai dagoenarentzat. Agintariak, oraingoan, gus-tura: “Krisia ez dakit zer, bla, bla, bla...”. Baina horiek ez dute sufritzen langabezia, esplotazioa, prekarietatea...

AHTa gizarte honen isla da, trena sistema honen sinboloa da, eta beti gertatzen den bezela, erabaki garrantzitsuetan herriak ez du zer ikusirik. Orain berriro deitzen gaituzte bozkatzera, baina Europako hauteskundeetan nik erabaki nahi nukeena da zabor kontraturik ez egotea, espekulaziorik ez egotea eta abar; hau da, herritarren arazoe-tan denok parte hartzea. Baina, dirudienez eta historiak adierazi duenez, agintarien eta enpre-sariaren arteko harremanak oso onak dira. Honen adibide bat Felipe Gonzalez “gazte marxista ohia” (sic) da: Carlos Slimen (Telmex enpresako presidentea) aholkulari izateagatik 1,5 euro kobratu zituen lau urteko lanagatik. Euskal Herri mailan Ardantza daukagu, lehendakari-tza utziz geroztik Euskalteko presidente.

Noam Chomskyren liburu batean dator XVIII. mendean Ingalaterrako nekazarien pan-fleto hau: “nekazariak” agintzea nahi zuten, “beharrak ezagutzen” zituztelako; ez “zaldunek edo nobleek”, “legeak inposatzen” zizkietelako, “beldurraren bidez aukeratuak” zirelako eta ez zituztelako “jendearen arazoak ezagutzen”. Gizartea kon-turatzen hasi da “ongizatearen gizartea” mitoa dela; ziurgabetasunean bizi garela.

Beste gizarte bat eraikitze-ko prest gaude? Ez da amets bat; Kataluniako kolektibo batzuk jarri dira martxan proiektu itxaropentsu batean (www.17-s.info). Alternatibak sortu behar ditugu denok batera eztabaida publikoan, indar sindikalak (botereari saldu eta ez daudenak, behintzat), autogestioaren alde gaudenok eta kapitalismoak ez duela funtzionatzen konturatu direnak. Goazen sare sozial bat eraikitzen, sortu dezagun gure seme-alabek merezi duten geroa!

> DURANGO



Emilio Baqué eta Pedro Etxenagusia eskaini dabe berbaldia Ekintzailearen Egunean. J. Fernandez

Durangaldeko ekimen ekintzaileak berbagai

Ekintzailearen Egunagaz bat egin da Durangaldeko ekimen ekintzaileak hartu zituzten berbagai Plateruenean. Emilio Baqué (Café Dromedario) eta Pedro Etxenagusia (Ona Electro-erosión) gonbi-datu zituzten Durangaldeko Behargintzak eta Maristak ikastetxeak, Gaztelanbidean BBK eta Jaur-laritzak lagunduta. *Grandes experien-cias emprendedoras en Durangal-dea* izenburupean jardun eben, Innobasqueko Ekintzailetza Aurre-ratuko zuzendari den Ignacio Lakunza moderatzaile ebela. Goi-zean, Maristetan, Karlos Ibarron-dok, Mikel Izarzugazak eta Japan Tunning-eko arduradunek *Una pequeña idea convertida en gran éxito* gaiaz jardun eben. ■ A. B.

EXCAVACIONES JON

MOTATUZITUTAKO INDUSTRIAK HONDAKINDEGIA

Jon Guriagotia Guriategui

INDUSTRIAL 100 • 48900 • 48900 • 48900 • 48900

ZARATE ELEXP
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyelexpe.biz

KULTURA[>]

Argazkia: Judit Fernandez

BERTSOLARITZA > TAILERRA

DF bertsoZALE eskolaren Platerueneko laugarren saioa: gai-jartzailetza

Durungaldeko bertsozaleei luzaturiko proposamena da maiatz hasieratik martitzen iluntzero Durangoko Platerueneko izaten dutena.

Bertsolaritzari buruzko eza-gutzan sakontzeko, bertsolari, bertsozale eta gai-jartzaileak biltzen dituzte. Guztien parte-hartzea oinarri duten saioen artean laugarrena da argazkian jasotakoa.

Hain zuzen ere, martitzen honetan, gai-jartzaileen lanaren inguruan mamitu dute laugarren saioa. Aste honetako saioa gidatzen Josu Goikoetxea gai-jartzaile gernikarrak jardun zuen; bertso ekitaldien ezaugarriak ezagutu eta gaiak prestatu zein aurkeztearen gaineko gorabehe-

ren berri eman die tailerrean bildu diren bertsozaleei.

Igor Elortzaren ahotik bat-bateko bertsogintzaz, Unai Iturriagarekin bertso jarriez eta Xabier Amurizarenetik bertsolaritzaren historiaz aritu ziren aurretik. DF bertsozale eskolaren hurrengo hitzordua, berriz, ekainaren 2an da: Maialen Lujanbio bertsolari hernaniarra izango da hizlari.

Bertsolaritzari buruzko Platerueneko tailerraren lehenengo edizioa amaitzeko, bestela ezin eta, bertso saioa egingo dute ekainaren 4an, Platerueneko. Durungaldeko Eneko Abasolo "Abarkas", Miren Amuriza, Gorka Lazkano eta Eñaut Uruburu "Lepotxo" bertsolariak arituko dira. ■ I.E.

12 > Euskal Astearen aurkezpena

Aste honetan hasi da Durangon uda sasoia iragartzen duen Euskal Astearen XII. edizioa. Hiru asteburutan 18 ekitaldi izango dira.



13 > Nagusien Antzerki jaialdia

Asteon izan da Goratagora antzerki taldeak bultzatuta antolatzen den Nagusien Antzerki Jaialdia: *El mirador* eskainiko dute durangarrek.

MUSIKA> KONTZERTUA

'Dos Lágrimas' aurkeztera dator bihar Diego "El Cigala"

San Agustin kulturguneak antolatu du Landakon izango den kontzertua



tutako *Lágrimas Negras* diskoarekin hasitako ibilbideari jarraipena eman dio bost urte geroago kaleratutako *Dos Lágrimas* diskoak, abeslariaren berbatan. "Bide horretatik jarraitu nahi nuen, baina beti ere aurrekoa hobetuko zuen lan bat egiteko asmotan, eta, emaitza entzunda, asmoa lortu dugula uste dut", dio El Cigalak.

Abesti ezagunen bertsio bereziak egingo ditu El Cigalak Durangon

Abesti oso ezagunen bertsio bereziak egiten ditu azken lanean El Cigalak: *Dos gardenias*, *Maria de la O*, *Compromiso* eta *Dos cruces* lako kantak flamenkoa, koplak eta jazz latindarra uztartuz eskaintzen dituena. Disko berriko horiek eta *Lágrimas Negras* diskoan entzutetsu egin ziren kantak joko ditu madrildarrak Durangon.

Flamenkoa, koplak eta jazz latindarra elkartzetik sortutako doinuak

Egunotan grabazio eta entseguetan buru-belarri sartuta ibili den Diego "El Cigala", Madrilgo Rastro auzoan jaiotako kantaria, Durangoko Landako erakustazokan izango dugu bihar, maiatzaren 30ean, 22:00etatik aurrera. *Dos Lágrimas* deituriko diskoan jasotako kantak aurkeztera dator gure artera. Hain

justu ere, orain urtebete, 2008ko maiatzean, kaleratu zuen *Dos Lágrimas* diskoan bildutako abesti ezagunen bertsio bereziak egingo ditu El Cigalak Durangoko zuzeneko emanaldian.

Musikazale askoren ustez, joan zen hamarkadako musika latindarreko diskorik garrantzitsuena izan zen 2003an plazaratu

JAIALDIA> PROGRAMAZIOA

Hiru asteburu hartuko dituzte Euskal Asteako ikuskizunek

Durangoko Abesbatzen emanaldiak abiatuko du, gaur, Euskal Astea 2009

Gaur 20:00etan Santa Ana elizan hasiko da 2009rako Durangoko Udalak eta herriko 25 elkarteek elkarlanean antolatu duten Euskal Astea. Amillena, Bogoroditsie eta Bartolome Ertzilla musika eskolako abesbatzen emanaldia

laz baino 16.000 euro gutxiagoko aurrekontua izango du aurtengoak

izango da ekainaren 14a arte izango den jaialdiaren egitarauko lehenengo hitzordua. Horren aurretik bestalde, 19:00etan, Durangoko Pilotazale elkarteak bultzatuta, esku pilota jaialdia izango da Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.



Kepa Aginako

GEURE DURANGALDEA



Asier Iturriaga
Platerueneko kudeatzailea

Erdu dantzara!

Gure egitarauan kultur eskaintza osatuago eta aberatsagoa eskaini guran, urte hasieragaz batera dantza tailerra jarri genduen martxan Plateruenean, AIKO dantza taldearen eskutik. Uste genduen eskualdean bazegoela dantzarako nahikoa zaletasun (herri gehienek dantzari talde bat, behintzat, badaukie), baina onartu beharra daukat zalantza bat baino gehiago eduki genduela publikoaren erantzuna zein izango zen aurreikusterakoan, halakorik sekula antolatu barik gengozen eta. Gure harridurarako, erantzuna ikaragarria izan zen, eta ehun lagunetik gora matrikulatu ziren ikastaroan. Astean behin eta ordu eta erdiko saioetan sokadantza, porrusalda, pasodoblea, jota, jauzia, tangoa eta beste hamaika dantza estilo landu doguz, bertaratutakoen gozamenerako.

Asteroko ikastaroari hilean behingo erromeria gehitu jakon gero, eta horreetan be jenteak erruz parte hartu dau. Nire ezjakintasunean, ez nekien gure herrian dantzarako zenbaterainoko afizinoa dagoen!

Hileroko erromeria horreek be heldu dira ikasturte hone tako azken geltokira, eta ekainaren 20an Dantzaldi Ibiltariaren Eguna ospatuko dogu, Landako erakustazokan zein Plateruenean bertan. Egun osoko jaia izango da: goizez dantza tailerrak, eguerdiz erregela erakustaldia, sokadantza, bazkaria, eta, bazkalostean, iparraldeko kideekin kantaldia eta dantzaldia. Eguna borobiltzeko, iluntzean Plateruenean erromeria egingo dogu AIKO taldeko lagunekin. Dantzarako arropa eroso eta eratea gomendatzen deuskue, badaezpada. Plateruon partez, AIKOko lagunei zorionak eta eskerrak emon gura deuseguz, emon deuskuen guztiagaitik (Itzela haz, Sabin!). Gogoratu zer dinon abestiak: "...kantatzen/dantzatzen duen herria ez da inoiz hilko..."

Asteburu honetan izango da baita, maiatzaren 30ean, Durangoko Artisten Elkarateak antolatzen duen Aire Libreko Margo Lehiaketa. Eguerdira arte euren lanak osatzen jardungo dute artistek, eta 18:00etan Ezkurdiko Udal aretoan izango da sari banaketa.

Hiru asteburutan izango dira herriko elkarteek proposatu eta antolatutako musika, dantza, arte plastiko eta kirol arloko ekitaldiak. Maiatzaren 29an hasi eta ekainaren 14an amaituko da aurtengo Euskal Astea.

Astelehenean Udaletxean egindako aurkezpenean nabarmendu dutenez, "egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta aurrekontua murriztu" dute aurtent. Guztira, 32.000 euroko aurrekontua bideratuko du Udalak Eus-

kal Asterako elkarteek proposatutako ekitaldi eta ikuskizunak finantzatzera; iazkoarekin alderatuta, 16.000 euro gutxiago.

Udaleko teknikariak nabarmendu duenez, Udaleko sailek antolatzen zituzten ekitaldiak dira aurtent, aurrekontu murrizketaren ondorioz izango ez direnak; besteak beste, herri-bazkaria, haurrentzako *Zezenak dira* eta rock kontzertuak ez dira egingo aurtent.

Maiatzaren 30ean izango dena, Tronperri dantza taldeak antolatutako Euskal Dantza Jaialdia izango da: Andra Mariko elizpean 19:30ean izango dira Zuberoa eta Lapurdiko dantzak.

Ekainaren 2an, 4an eta 5ean, Durangoko Kurutziaga Ikastolak, San Jose Jesuitak eta Landako Eskolak antolatuta, haurrentzako egitaraua da nagusi: jolas tradizionalak ekainaren 2an Landako eskolan; ekainaren 4an *Barriola*, *San Adriango azeria* filma Zugazineman; ekainaren 5ean arrantzaleen inguruko herri-kirolak Andra Mariko elizpean; ekainaren 5ean eta 6an, gainera, *Aitonaren urtebetetzea* operetaren emanaldia egingo dute Bartolome Ertzillako haurrek San Agustinen.

Durango Hiria txistu lehiaketaren V. edizioaren sari banaketa, ekainaren 13an, zapatuan, egingo du lehen Berziztu izena zeukan Silboberri elkarteak. San Agustín kulturgunean izango da ekitaldia hau ere. ■ I.E.

Zuberoa eta Lapurdiko dantza emanaldia bihar da Andra Marian

Ekainaren 2, 4 eta 5ean izango da umeendako programazio berezia

ANTZERKIA > EMANALDIK



'El mirador' estreinatuko du Goratagora antzerki taldeak

Maiatzaren 30 eta 31n erakutsiko du Goratagora taldeak bere azken lana

Bi urtero Durangon izaten den hitzordua da Nagusien Antzerki Jardunaldia, eta hirugarren aldia du aurtengoa. Orain hamar urte ingurutik hona, astero birritan antzerki taldean elkartzen diren dozena bat lagunek osatzen duten Goratagora antzerki taldea du bultzatzaile

Orain 10 urtetik, astean birritan batzen dira antzerki taldean

nagusien ekimenak. Zahartzaroa bizitzeko bestelako modua da oraingo adineko pertsonen dutena, eta horren adibide da taldea. Osasuntsuago ailegatzeko gara orain urte horietara, kultura maila altuagoarekin, eta gizartearen parte-hartze handiagoa izaten dute nagusiek. Beste modu bate-

ra bizi dira Goratagora antzerki taldea osatzen dutenak ere: erretiroan duten denbora ikasi eta disfrutatzeko baliatzen dute.

Aurrera egiteko energia

Energia berritzeko eta "adierazpenerako" balio diela antzerkiak esaten dute Goratagorako kideek, eta parte hartzeko gogoia duen edonorentzat "zabalik" dagoela taldea.

Izaskun Asua irakaslea oso zorrotza dela eta astero euren burua hobetzen saiatzeko indarra ematen diela azaltzen dute. Egunerokotasunari aurre egiten laguntzen die antzerki talde honetan egiten duten lanak, diotenez.

Taldeko Pilik aurkezpenean azaldu zuen, lau berbatan: "bizia ematen digu antzerkiak". Jose Marik esperientzia gogorak ere bizi izan dituztela talde honekin gogoratu zuen: zaharren egoitzetan, osasun arazo larriak dituzten lagunen aurrean emanaldiak egin izan dituztela. Urte eta erdi inguru eman dute aurretik prestatutako lana oholtzaratu eta jardunaldiotan estreinatuko duten obra *El Mirador* izeneko lana prestatzen.

Gonbidatutako taldeak

Aste honetan, eguazten, eguen eta barikuan, egin dituzte euren lanen emanaldiak Durangoko Goratagorak Nagusien Antzerki Jardunaldietara gonbidatu dituen Burgos, Gasteiz eta Oñatiko taldeek: Dario Fo italiarraren *No hay ladrón que por bien no venga*, *Esmoquin 2*, eta *¿Cuántos años tiene amama...?* antzezlanak erakutsi dituzte hiru talde horiek.

Asteon ezagutu dugun Durangoko Goratagora taldean batzen diren 12 lagunek aurtengoa prestatutako *El mirador* lanaren emanaldiak maiatzaren 30ean 20:00etan eta 31n 19:00etan izango dira.

Hainbat autoreren lanen zatiak espazio eta denbora bereira moldatu ditu Asua zuzendari eta irakaslea, eta antzerki taldeko guztiak izango dira oholtza gainean. Umore ikutua duten esketak dira egingo dituztenak, egunerokotasunari buruzkoak. ■ I.E.

Euren lanak erakustera gonbidatu dituzte nagusien beste hiru talde

FILMEA > EMANALDIA

Peter Greenaway-ren 'Rembrandt's J'accuse'

Ekainaren 4an, 19:30ean, emango dute Galesko zuzendariaren dokumentala

1966tik filme zuzendari lanean dabilen Peter Greenaway galestarren *Rembrandt's J'accuse* dokumentala da 'Hilean Behin' zine dokumentalaren zikloan ekainean

Rembrandt-en La ronda de la noche koadroa dau iturri lanak

rako aukeran ipini dutena. Ekainaren 4an Iturri kultur etxean eskainiko dute, eta doakoa izango da emanaldirako sarrera.

Artearen historian izan den koadrorik ospetsuenetakoa baten, Rembrandten *La ronda de noche* koadroan, jasotzen den konspirazioa irudikatzen da. Koadroaren atzean dagoen hilketari buruzko Greenawayren ikerketa da dokudrama honen oinarrian dagoena, eta Rembrandten koadroan dauden arrastoak jarraitu eta azpiko azaleratzen du filmak. ■ I.E.



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

EKAINAK 4 20:00etan
BERTSO SAIOA
DF BERTSOZALE ESKOLA
BERTSOLARITZA. Sarrera doan.

EKAINAK 5 22:00etan
SEMOND'S + AH + TRASTORNO
KONTZERTUA. Sarrera doan.

EKAINAK 6 22:00etan
SEI URTE + UNE
KONTZERTUA. Sarrera: 5 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

DIEGO EL CIGALA
"DOS LÁGRIMAS"
LANDAKOGUNEA (Durango)

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Maiatzak 30
larunbata 22:00etan

HITZ
Liburua

14.000 000 07 76 Artekale, 14 Durango

Gutunak @

'Durango TDespista'...eta nola, gainera!

Astearte iluntzeko GauOn saioan, astero bezala, tertuliakide taldea batu zen lagunarteko eta konfiantza giroan hainbat gai jorratzeko. Kontu askori buruz hitz egin zen saio horretan, horien artean, Durangaldeko Mankomunitateko euskararen egoerari buruz.

Gaia Durangaldeko Mankomunitateko euskara arduradunak atera zuen, eta horretarako aitzakia Mankomunitateko euskarari buruzko txostena mahai gainean jartzea izan zen. Komeni da argitzea txosten horrek euskararen egoera gaur egun nolakoa den eta azken urteotan zer bilakaera izan duen datuekin zehatz-mehatz azaltzeaz gain, Mankomunitate mailan jorratu daitezkeen zenbait esparru eta horietako bakoitzerako proposamenak jasotzen dituela. Argitzea komeni dela diogu, tertulian ez zelako modurik egon hori horrela denik ganoraz azaltzeko.

Tertuliakideei hainbat gairi buruz hitz egitea eskatzen zaie, eta, normala denez, ezinezkoa da gai horietan guztietan adituak izatea. Hala ere, gure ustez, gutxieneko batzuk bete beharko lituzkete. Horietako lehenengoa, jorratu behar duten gaia aldeztu aurretik, zertxobait bada ere, lantzea. Eta bigarrena, zentzudunak eta zuhurrak izatea; bereziki, ezagutzen ez dituzten gaiei buruz egia borobilak bota aurretik.

Zoritarrez, astearte gaueko saioan ez ziren gutxieneko baldintza horiek inondik inora bete. Euskararen egoerari buruz egin ziren baieztapenak erabat okerrak izan ziren, eta txostenak jasotzen dituen edukiei zein txostena bera lantzeko moduari eta epeei buruzkoak ere bai.

Saioan parte hartu zuten tertuliakideen jokabidea harritzekoa izan bazen ere, are harrigarriagoa izan zen esandakoei Mankomunitateko euskara arduradunak ganoraz erantzuteko erakutsi zuen gaitasun falta. Eta, benetan, zeregin erraza zeukan. Erraza diogu, botatakoak inolako oinarri sendorik gabeko sinplekeria hutsak izan zirelako, eta, gainera, erantzun guztiak aurrean zeukan txostenean jasota zituelako.

Ona da gure herrian latzak diren zenbait gai desdramatizatzea. Ona da euskarari buruz lasai, lagunarteko giroan, muturreko planteamenduetara jo gabe hitz egitea. Ona da erdaldun elebarrak euskarari buruz interesa agertzea eta haien iritziak ezagutzera ematea. Baina horrek gutxieneko zehaztasuna eta zorrozatasuna eskatzen du guztion aldetik.


Barbaro elkarte

Klik batean @



Bartzelonara bidaiatu dabe Zaldibarko trikitilariak

Bartzelonako Euskal Etxeak bere 30. urtemuga ospatzen dihardu. Joan zen asteburuan bertako giroa alaitzera joan ziren Zaldibarko eta Bergarako trikitilariak. Hiru hamarkada honeetan euskal kultura zabaltzeko ekimen ugari egin ditu Bartzelonako Euskal Etxeak, hiriko agenda kulturalan erreferentzia bilakatuz.



Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org

Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

kolaborazinoa



Marisa Barrena

Tabako bako esparruak

Tabakoa droga da, efektu pizgarridun droga legala. Gainera, lasaitzea, erlaxatzea, eskuetan zerbait izatea eta antzekoak dakartza. Jakin badakigu tabakoa kaltegarria dela. Iturri ofizialen arabera, erretzeko ohitura horrek urtero 2.600 pertsonaren heriotza goiztiarra eragiten du Euskadin.

Hainbat ahalegin egiten diren arren, erretzeari uztea ez da erraza, antza. Ahalegin horretan ikastaroak eta debekuak azpimarratu daitezke. Ikastaroak erretzaileentzat izaten dira. Debekuak, oster, erretzaile ez garenon eskubideak defendatzeko tresna bikaina. Egia esan, azken urteotan alde galanta ikusi dugu. Lehen erretzea ohikoa zen leku askotan, gaur egun pentsaezina da erretzea; trenetan, autobusetan, zinemetan, antzokietan, ospitaletan, lanlekuetan... Hala ere, debekua ez da oraindik zenbait gunetara heldu. Ulertezina den arren, Euskal Herrian, Europako beste herrialdeetan ez bezala, ez da erraza erretzea galarazita dagoen jatetxe edo kafetegi bat aurkitzea. Frontoietan ere ikusleek erre egiten dute debekuarri jaramonik egin barik. Zenbait bertso saiotan, nahiz eta saioa aretoan izan, bertsolariek taula gainean lasai asko erretzen dute.

Ez da erraza erretzea galarazita dagoen kafetegi edo jatetxe bat aurkitzea

Egia esan, ez dakit erretzaileek inoiz pentsatzen duten zein kaltegarria eta desatsegina gertatzen den haien kea. Behar bada, pentsatuko balute, tabakoa baztertu eta bizimodu osasungarriagoari helduko liokete. Bien bitartean, ez-erretzaileok tabakorik gabeko esparruak errebindikatzen jarraitu beharko dugu, denon onerako izango dira-eta.



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2009ko maiatzaren 29a - 8. urtea - 332 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mañaria
Atxondo	Garai	Mallabia
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Maria Gonzalez,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhua Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.



autoak09

gehigarria

ABS



Segurtasun sistema



Ibilgailuen segurtasun maila hobetu egin da azken urteotan, bai aurrerapen teknologikoengaitik bai automobilen euren barrikuntza dela-eta. Teknologiaren baitan hainbat gailu mota dagoz, errepideetan gertatzen diren ezbehar-kopuru handiak gitxitzeko.


ko. Gailu horreen arteko bat da ABS sistema. Balaztatzearen unean gurpilaren blokeoa ekiditea, ibilgailuaren norabidea mantentzen laguntzea eta balaztatze distantziaren murriztea helburu dauen ABS sistema izateak, gidatzerako orduan izan leitekeen segurtasuna areagotzen dau.

Segurtasun sistema aktibo moduan ABSak daukan funtzinoa galgatzearen esfortzua neurtzea eta gurpil bakoitzaren itsaspen baldintzetara egokitzea da, horretara, gurpilak blokeatu daitezzen eragotziz. ABSak ibilgailuak izan leiken itsaspen galerari erantzuna emon eta noranzkoa zein egonkortasuna galtzeko arriskua bertan behera izten dau.

ABSa eraginkorra izan daiten, pneumatikoen egoera derrigorrez zaindu behar da, horreek direlako ibilgailuaren itsaspenera ziurtatzeko arduradunak. Oker mekanikoak tarteko dagozen istripu asko pneumatikoen egoera kaskarragaz lotutakoak izaten dira, bai higadura irregularragaitik bai presio desegokiagaitik.




Pneumatikoen marrazkiak:



- Pneumatiko baten marrazkiak 1,6 milimetroko sakonerako higidura maximoa izan leike.
- Euria balitz, ez geunke 3 milimetroko higidura baino txikiagoagaz gidatu behar.
- Marrazkiaren sakonera desegokiagaz gidatzeak hiru arrisku dakar: pneumatikoaren egonkortasunaren galera, balaztatze distantziaren handiagotzea eta aquaplaning efektua areagotzeko arriskua.

Pneumatikoen presinoa:



- Pneumatikoaren presinoak ibilgailuak dakarren mantentze gidan aholkatutakoa izan behar dau, eta presiona automobila hotzean dagoela begiratu beharreko kontua da.
- Aholkatutako presinoa baino txikiagoagaz gidatzeak ibilgailuaren itsaspenaren galera eta pneumatikoaren higidura eta zulatze arrisku handiagoa dakar beragaz gidatzerakoan.

HATOR
AUTOESKOLA

Madalenoste, 1 behea
Telefona: 94 620 17 89
48200 DURANGO

AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.
TEL.: 946 812 123 FAXA: 946 203 818



UAI, 1 INDUSTRIAGUNEA
(Orozketa errepidea)
48215 Iurreta / Bizkai
126 Posta Kutxa Durango

e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

Gidatze ekologikoa



Aldaketa klimatikoak eta petrolioaren garestitzeak gasolinaren alternatiba geroago eta gertuago egotea eragiten dabe. Zenbait ikerketaren arabera, planetan isurtzen diren gas kutsagarrien %20-25 inguru automobilek sortutakoak dira. Horregaitik, Europar Batasunak eta Kyotoko Protokoloak lako erakundeek ibilgailuetatik datorren karbono dioxidoa giotxitzeko arautegiak garatu ditue.



Datozen urteetan, autoa erosterako orduan, gas kutsagarrien isuria kontutan hartuko da. Oraingoan, ibilgailu hibrido bakarra dago merkatuan, alor horretan aitzindaria den Toyota Priusa. Era horretako ibilgailuen berezitasuna, autoek darabilleen bi energia iturri desbardinetan dago. Energia elektrikoa sortzen dauen bateria batetaz aparte, aldi berean, barne-errekuntzako motor batek sortzen dauen energia be badarabil ibilgailuak. Kasu horretan, sistema elektrikoak ezartzen dau zer motor erabiliko den eta baita noiz erabiliko den be, motor termikoa izanik erabiliko den azken aukera. Gurpilak birarazteko motorrak, iturriren batetik hartu behar dau energia, eta, ondoren, energia hori eraldatu egingo dau energia mekanikoa lortzeko. Beraz, esan leiteke motor elektrikoaren eta gasolinazko motorraren konbinazio hori energia fosilaz bakarrik dabilzen ohiko motorren aurrean

sortu den alternatiba barri eta eraginkorra dela. Teknologia hibridoari esker, hirietan %80rainoko kontsumo murrizketa eta errepidean %40rainokoa lortu leiteke.

Baina, abantailak ez dira ingurumenari egiten jakon mesedeagaz amaitzen. Horrez gainera, autoak zarata gitxiago egiten dau, errazago erabiltzen da eta bere erantzuna berehalakoa da. Gainera, desazelerazioetan energia erreku-peratu eta ibilbide motzetan hobeto funtzionatzen dau.

Halan be, eragozpenik be badabe ibilgailu ekologiko horreek. Adibidez, ohiko automobil batek baino pisu handiagoa daukie eta euren konplexutasunak matxura arriskua areagotzen dau. Baina, desabantailarik handiena auto horreen prezioa da, oraingoan, behintzat, garestiegiak dira-eta.

LABURRAK

- Auto istripuz hildakoen %30etik %50era alkoholaren erruz hiltzen dira.
- Auto gidari gehienek ez dakie alkoholemia kontrol batean zenbateko alkohol kantitateagaz emoten den positibo.
- Egokitasunez gidatuz gero, %10 eta %25 artean aurreztu leiteke erregaia, eta karbono dioxidoaren isuriaren %15 murriztuko litzake.
- Hego Euskal Herriko biztanleek 1.500 euroko laguntza jasotzeko eskubidea izango dabe auto barria erosterakoan.
- Gehienez 35 kw-ko edo 47 cv-ko potentzia eta 500 zentimetro kubikodun motorrak gidatzeko A2 gidabaimen barria lortu beharko da.
- Ziklomotoreak gidatzeko AM gidabaimen barria beharko da, eta 15 urtetik gorakoek lortu ahal izango dabe; halan be, 18 urte bete arte ezin izango dabe beste inor garraiatu.
- Autoak erosteko diru laguntzen gaia puri-purian dagoenean, Ferrari etxeak Maranello (Italia) daukan lantegian munduko autorik garestiena bihurtu den 1957ko Ferrari 250 Testa Rossa bat 9.020.000 eurotan erosi dabe enkantean.
- Hego Euskal Herrian 2008. urtean automobilen salmenta %22,6 jaitsi zen.



A&L
AZPIRI LEJARDI

Correduría de Seguros S.L.

Aut. D.G.S.: J-1624

azpirilejardi@azpirilejardi.com - www.azpirilejardi.com

Tel / Faxa: 94 682 49 37 / 94 682 46 19

Geltoki, 11 behea 48240 BERRIZ

Tel / Faxa: 94 621 58 59 / 94 621 59 27

Matxinestarta, 22 48200 DURANGO

**GAURSAk 2000E Plana
hobetzen du**

1.000 € -ko

**deskontua*
aukerako edozein
ibilgailu erostean**

- **CO₂ isurietan mugarik gabe**
- **10 urte baino gehiagoko kotxea
txatarrara bidaltzeko uztean**

*2000E Plana deskontuan barneratua. 09/06/30an erositako kotxeetan baliozko sustapena, partikular, autonomo eta ete-entzat. Beste eskaintza edo sustapenekin bateraezina.

**RENAULT
OCASIÓN**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO
GAURSA AUTOAK
ARRIANDI, 12. IURRETA. TELF. 94 620 33 00



ELAIA Information Technology >

Internet banda zabala ez da zurera heltzen?

Ohikoa da internet banda zabalaren konexioari buruzko iragarkiak ikustea. Telefonica, Euskaltel, Ya.com, Jazztel, ADSL, 3G, Wimax, 20Mega, 12Mega, 6 Mega, etab. Era guztietako konexio eta abiadurak, baita teknologiak ere.

Gaur egun, nork ez du internet erabiltzen, lanean zein etxean? Erosketa bat egin, bankuko kontuak eguneratu, egunkariak irakurri, emailak bidali, txateatu, sare sozial batean parte hartu, eskolako lan bat egiteko informazioa bilatu, etab.

Gehienontzat ohiko bilakatu dira, baina beste hainbatek ezin du horrelakorik egin. Teknologia berrien garai honetan, teknologia bera izan delako muga jarri duena. Batzuetan zerbitzua emateko orduan teknologiarik eza eta besteetan prezioa izan dira oztopo.

Muga horiek hautsi egin dira: Tooway heldu da. Bi norantzek satelite bidez egin ahal izango dira, eta horrela ez da beste instalaziorik behar. Eta edonoren eskura dagoen prezioa dauka (hilean 39 eurotik hasita).

Gaur egun, Tooway-k 2Mbpsko jaitiera eta 384 Kbpsko igoera eskaintzen ditu. Zeinentzako da egokia Tooway? Abiadura geldoko telefono bidezko konexioa duten etxe guztientzat, eta baita inguruan hain ugariak diren enpresa txikien negozio tresna moduan be. Bakoitzaren beharrei egokitutako paketea aurkitu daiteke.

Behar duzun bakarria zerua ikustea da, beste guztia Tooway-k emango dizu instalazioa burutu ondoren.

Harremanetarako telefonoa:

94 640 98 98



Gomendioa

Ordenagailuak ahalik eta erantzu-nik onena eman dezan, noizean behin egin beharreko lan batzuk daude, norberak egin ditzakeenak modu errazean. Horietako bat desfragmentazioa deritzona da.

Programak instalatu/desinstalatu, fitxategiak kopiatu/ezabatu,... Horrek guztiak eragin zuzena dauka ordenagailuaren funtzionamenduan.

Desfragmentatzerakoan, gure disko gogorrean dauden fitxategiak ordenatu eta ordenagailuaren abiadura hobetzea lortuko dugu, bizkorrago aurkituko duelako informazioa.

Horretarako zera egin behar dugu:

1 - Inicio - Programas -> Accesorios -> Herramientas del sistema -> Desfragmentador de disco; edo, - Inicio -> Ejecutar -> Dfrg.msc



2 - Behin programa irekita dagoenean, ustez desfragmentazioa behar duen unitatea aukeratu eta 'Analizar' sakatuko dugu.

3 - Behin analisisa burutu dugunean, Desfragmentatzea behar duela adierazten badigu, 'Desfragmentar' sakatuko dugu.

Desfragmentazioak behar duen denbora disko gogorren abiadura eta unitatearen zatiketa mailaren arabera da.

Garrantzitsua da antibirusa desaktibatzea.

KONTSULTA

Outlook-ak, email bat bidaltzen dudanean bakoitzean, bidali nahi diodanaren helbide guztiak eskaintzen dizkit. Bat zuzena da, baina gainerakoak ez. Zer egin dezaket zuzena bakarrik agertzeko?

Email bat bidaltzerakoan, hizkiak idatzi ahala izen edo helbide elektronikoak iradokitzen dizkigu Autocompletar ezaugarriak. Bi aukera daude Outlook-ek duen memoria horietako kontaktuak ezabatzeko: guk aukeratzen duguna/ditugunak ezabatu, edo guztiak ezabatu. Lehenengo kasurako, nahi dugunaren izen edo helbidearen hizkiak idazten ari garela, ezabatu nahi duguna aukeratuko dugu geizien bidez gainean kokatuz, eta SUPR tekla sakatuko dugu. Prozesu hori, ezabatu nahi den izen edo helbide bakoitzeko egin behar da. Bigarrenetarako, berriz, ".nk2" luzapena duen fitxategia ezabatu behar da. Badaezpada, lehenengo segurtasun kopia egitea komeni da. L.S (emaillez)

Information Technology S.L.

Zure sistema informatikoa ez da umeen jolasa.

Kontratatu zerbitzu profesionala:

KONTRATATU elaiia

www.elaia.es • e-mail: info@elaia.es • Tel.: 94 640 98 98

KONTSULTAK BIDALTZEKO:

anbototik@elaia.es e-mailera idatzi.

Gehienez 200 karaktereko kontsulta.

KONTSULTAK EGITEN DITUZUENEN ARTEAN ANTIBIRUS BAT ZOZKETATUKO DUGU.
Bidalitako datuak erabiliz, irabazlearekin zuzenean jarriko gara kontaktuan.

*** Bi hilerik behin egingo dugu zozketa jasotako email guztien artean**

AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Maiatzaren 29an, 22:00etan

'VA DE BROMAS'

No hay ladrón que por bien no venga hipokresia salatzen dauen Dario Fó antzerkigile italiarrarena, batetik, eta, bestetik, *El maestro*, komedia eta antzerki absurdoaren egile garrantzi-tsunetarikoa zen Eugene Ionesco idazlearen obra. Bion moldaketa batzen dauen *Va de bromas* eskainiko dau Donostiako TESS talde amaer-rak. Berriren izango da 1964an Donostian sortutako antzerkizaleen taldea: Teatro Estudio San Sebastian.

ANTZERKIA

BERRIZ

» **'Va de bromas' (Teatro Estudio San Sebastian)**, maiatzaren 29an, 22:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

» **Adinekoek antzezutako III. Antzerki Jardunaldiak**, maiatzaren 29an eta 31n 19:00etan, eta hilaren 30ean 20:00etan. San Agustin kulturgunean.

BERTSOAK

DURANGO

» **Maialen Lujanbiorekin berbaldua, DF bertsoZALE eskolaren baitan.** Ekainaren 2an, 19:30etik 21:00etara, Plateruena kafe antzokian.



» **Miren Amuriza, Eneko Abasolo "Abarkas", Gorka Lazkano eta Eñaut Uruburu "Lepotxo", DF bertsoZALE eskolaren baitan.** Ekainaren 4an, 20:00etan, Plateruena kafe antzokian.

BESTEAK

BERRIZ

» **Udalekuak Lehen Hezkuntzako umeendako**, ekainaren 6tik 24a bitartean. Izena emoteko azken eguna maiatzaren 29a. DBHko gaztetxoentzat be hiruzpalau irteera antolatu dira. Izen-emotea, baina, irteera bakotzeko egingo da.

» **Emakumezkoen saskibaloia senior kopa**, maiatzaren 30 eta 31n, Berrizburu kiroldegian.

DURANGALDEA

» **Udabarriko mendi-ibiliak**, ekainaren 2an, Mañaria, Izurtza, Zaldibar, Iurreta, Garai eta Otxandio gaz irteera eratu dau Amankomunazgoko Adinekoen Sailak. Salburuako Ingurune Hezea eta Estibalitz bisitatuko ditue (94 620 05 46 / 94 620 18 60).

DURANGO

» **Txingudiko badiara irteera**, ekainaren 5ean, 08:20an. Hondarribitik katamara-



nean pasioa, bisita gidatua eta bazkaria barne; baita Donibane Lohitzunera bisita be. Izena emoteko Nagusien Egoitzan.

ERMUA

» **Gaztela-Leongo kultur astea**, maiatzaren 31 arte, Gaztela-Leongo kultur zentroak antolatuta.

» **Txikiteokide**, maiatzaren 29an, 20:00etatik 21:30era, Herga tabernan irtenda. **'Ermua ezagutuz' kalejira**, hilaren 30ean, 11:00etan, Patxi plazatik. Berbalagunek eratuta.

» **'Ermuan kantuan' kantu kalejira**, maiatzaren 30ean, 12:30ean, Orbe Kardinala plazan hasita. Euskal Birusak eratuta.

IURRETA

» **IX. Kirol Jardunaldiak: Kross eskolarra**, maiatzaren 31n, 10:00etan, Maiztegi herri eskolan.

ZALDIBAR

» **Gaztelekua (12-16 urte)**, maiatzaren 29, 30 eta 31n, 16:00etatik 20:00etara. Ibilaldira joango dira.

» **Eskualdeko II. Pilota Txapelketa**, maiatzaren 29an, 19:00etan, Olazar frontoian; 30ean, 16:30ean.

ZORNOTZA

» **Gazte Txokoa: Eskulan tailerra**, maiatzaren 29an, 08:00etatik 22:00etara, Zelaieta zentroan. **'Erdi Olgetan' (6-10 urte)**, hilaren 30ean, 16:00etatik 20:00etara.

BERBALDIA

ABADIÑO

» **Pentsino osagarriaren legeari buruzko informazioa**, ekainaren 2an, 17:00etatik 18:00etara, Txanporta kultur etxean. Amankomunazgoak eratuta, Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak lagunduta.

DURANGO

» **'Movimiento queer y sexualidades'**, maiatzaren 29an, 19:00etan. CNTren Komentukaleko egoitzan.

ERMUA

» **'Krisia, inmigrazioa eta Atzerri-tartasun Legearen erreforma berria' (Maite Fernández gizarte langilea)**, ekainaren 3an, 19:00etan, Lobiano kulturgunean.

DEIAK

DURANGO

» **Genero biolentziaren kontrako**

elkarretaratzea. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarrekin deituta.

IURRETA

» **1959an jaiotako urteurrena: Anaitasun bazkaria**, ekainaren 13an, 14:30ean, Garain. Aurretik, 12:00etan, meza, Aita San Migel elizan. Maiatzaren 30a bitartean emon leiteke izena, Ibai-Ondo kafetegian (639 52 00 94-Kontxi).

ERAKUSKETA

DURANGO

» **'Ez dira pasako', 'Lost In Durango' proiektu bekadunaren atala. Carlos Martinez.** Maiatzean, Arte eta Historia Museoa. 2007an, Udak Arte Sorkuntza bultzatzeko sortutako beka babestutakoa.



ELORRIO

» **Herriko elkarte eta kolektiboak**, ekainaren 7a arte, Iturri kultur etxean.

ERMUA

» **'Emakumeen ekarpenak ekonomiari: begibistakotik ikustezinera'**, ekainaren 1etik 6a arte, Lobiano kulturgunean. Emakumeak Aniztasunean elkarrekin eskutik. Aurkezpen ekitaldia, 1ean, 19:00etan.

ZORNOTZA

» **'Josturak' (Fernando de Vicente). Margoak.** Maiatzaren 31a bitartean, Zelaieta zentroan.

» **Zelaietako tailerretako lanak (pinturak, grabatuak, argazkiak, zurezko lanak...)**, ekainaren 1etik 15era, Zelaieta zentroan.

IKASTAROKAK

DURANGO

» **'Jabetzen: sexualitatea lehenengo pertsonan'**, ekainaren 10ean, 18:00etatik 21:00etara, Andragunean. Izena emoteko ekainaren 3a arte (25 lagunendako lekua). Haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dabe. Berdintasun Sailak eratuta.

» **Euskara ikastaro trinkoak AEK eratuta**, maiatzaren 22an hasi eta uztailaren 17a bitartean. 1., 2. eta 3. maila begira antolatutako

eskolak bost ordukoak dira (dena, 100 ordu). Izena emoteko epea zabaldu dau AEK-Abarrak euskaltegiak.

ELORRIO

» **Emakume eskolaren baitan 'Feminismoa: zer arraio da hori?'**, ekainaren 9, 16, 23 eta 30ean, 18:00etatik 20:00etara. Irakaslea, Saioa Hernandez. Aurrez eskatuz gero haurtzaindegia izango da. Izena Udaletxean emon behar da.

» **Emakume eskola: 'El amor no es cuidado ni renuncia: nuevas relaciones de pareja'**, ekainaren 1, 8, 15, 22 eta 29an, 18:00etatik 20:00etara. Irakaslea, Norma Vázquez. Aurrez eskatuz gero, haurtzaindegia izango da. Izena emoteko Udaletxeko erregistroan.

IPUINAK

DURANGO

» **Alaitz Muro ipuin kontalaria eta Agurtzane Villate ilustratzailea: 'Itsasoko ipuinak'**, maiatzaren 30ean, Udak Liburutegian: 17:00etan (3-5 urte) eta 17:30ean (6 urtetik gora).

IURRETA

» **'Enigmas del fuego' ipuin musikatua. Jennifer Ramsay (Eskoia) eta Teresa Grauren (Madrid) eskutik**, maiatzaren 29an, 20:00etan, Udak Liburutegian.



JAIK

DURANGO

Euskal Astea

» **Esku pilota jaialdia**, maiatzaren 29an, 19:00etan, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Durangoko Pilotazale elkarteak eratuta. **Abesbatzen kontzertua**, 20:00etan: **Amillena + Bogoroditsie + Bartolome Ertzillako abesbatzak**, Santa Ana elizan.

» **V. Margo Lehiaketa Aire Librean**, maiatzaren 30ean, 09:00etan. Durangaldeko Artisten Elkarteak eratuta. Izena emotea, Ezkurdi plazan. **Sari banaketa**, 18:00etan, Ezkurdi Udak Aretan.



» **VIII. 'Euskal Astea' Zesta Punta**

Txapelketaren Finalerdia, maiatzaren 30ean, 18:30ean, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Ezkurdi Jai-Alai Zesta Punta Eskolak eratuta.

» **XXVII. Euskal Dantza Jaialdia**, maiatzaren 30ean, 19:30ean, Andra Mariako elizpean: **Zuberoako Muskildi dantza taldeak eta Durangoko Tronperri dantza taldeak** eskainiko dabe ikuskizuna.

» **Umeen Euskal Joko Tradizionalak**, ekainaren 2an, 10:00etan, Landako kiroldegian. Landako herri eskolak antolatuta.

» **Mendi erreportajea eta berbaldua: 'Dhaulagiri-Manaslu' (Alex Txikon)**, ekainaren 3an, 20:00etan, San Agustin kulturgunean. Alpino Tabira mendizale elkarteak antolatuta.



» **Umeendako zinea: 'Barriola, San Adriango azeria'**, ekainaren 4an, 09:15ean, Zugaza zine aretoan. Kurutzia ikastolak antolatuta.

OTXANDIO

AHTaren kontrako jaia

» **AHTaren aurkako jaialdia**, maiatzaren 30ean, Durangaldeko gaztetxe eta gazte asanbladek antolatuta. **Durangaldeko gaztetxe eta gazte asanbladen gaineko eztabaida**, 11:30ean, eta, 13:30ean, **triki-poteoa** herriko tabernetan. **Herri-bazkaria**, 14:30ean, eta, ondoren, **monologoa**.

» **AHTaren aurkako jaialdia**, maiatzaren 30ean, Durangaldeko gaztetxe eta gazte asanbladek antolatuta. **Gaztetxeak defendatuz AHT Gelditu! lelopean kalejira**, 18:30ean; gero, **ekitaldia**. Jarraian, 20:00etan, playback gaztetxeroa eta 22:00etan kontzertuak: **Desperdicio, Halbstarke, Disorders eta Berbena**, plazan. Bestalde, Gaztetxean, **Delirium Tren Ez!** eta **DJ Jean Pierre**.



JARDUNALDIA

DURANGO

» **'XX. mendea Durangon eta Durangaldean' X. Historia**

Jardunaldiak: ‘De la ciudad tradicional a la urbe industrial. Arquitectura en Durango en el siglo XX’ (M^a Jesus Pacho EHuko Artearen Historia eta Musika Saileko irakaslea), ekainaren 4an, 19:30ean, Arte eta Historia Museoa.

LEHIAKETA

DURANGO

» **44. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka iragarriko dauen kartel lehiaketa.** Lanak Gerediaga elkarteko egoitzara helarazo behar dira (Larrasoloeta 3, 48200-Durango). Azken eguna uztailaren 1a. Saria: 1.300 euro.

ELORRIO

» **Ferixa Nausikoak iragartzeko kartel lehiaketa.** Azken eguna ekainaren 30a, 14:00ak bitartean. Sari bakarra emongo dabe: 500 euro. Informazio gehiagorako Iturri kultur etxera jo leiteke (94 603 20 32).

ERMUA

» **Santiagoak iragartzeko kartel lehiaketa.** Aurkezteko azken eguna ekainaren 11. Saria: 600 euro.

MUSIKA

BERRIZ

» **Los huevos de Kinder + Lindanne + Inserta + Los Breves,** maiatzaren 29an, 22:30ean, Hiltexgize gaztetxean.

DURANGO

» **The Cherry Boppers + Revolutionary Brothers Sound System + Dj Makala,** maiatzaren 29an, 22:00etan, Plateruenean.



» **Desecration + Nashgul + Extreme Noise Terror,** maiatzaren 30ean, 21:00etan Plateruenean.



» **Diego El Cigala,** maiatzaren 30ean, 22:00etan. Landako Erakustazokan.



» **Bart Sax + Perkusino Latinako ikasleak,** ekainaren 1ean 19:30ean, Bartolome Ertzilla musika eskolan.

ERMUA


» **Alboka musika eskolaren Musika Astea.** Ekainaren 1etik 4a arte, 19:30ean, ikasleen kontzertua.

ZALDIBAR

» **Trastorno + J.A.N.,** maiatzaren 30ean, 22:30ean, Gaztetxean.

ZORNOTZA

» **‘Internet cafe’, Kirmen Uribe eta**



Mikel Urdangarinen eskutik musika eta poesia ikuskizuna, maiatzaren 29an, 21:00etan, Zornotza Aretoan.

» **Udabarriko kontzertuak: Abes-Kimu Abesbatza + Coral Zornoza + Mundakako Abesbatza + Coro San Andres Sergi Domingo (Asturias).** Maiatzaren 30ean, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

» **Udabarriko kontzertuak: Larrako eskola,** ekainaren 4an, 20:00etan, Zornotza Aretoan.



Maiatzaren 29an, 22:00etan

SANTUTXUN SORTUTAKO JAZZ DOINUAK: THE CHERRY BOPPERS

Erabateko jazz-funk doinuak ekarriko ditu Plateruena kafe antzokira, gaur, Bilboko The Cherry Boppers boskoteak. ‘Play it again’ diskoan jazz, soul eta funk doinu dantzargarriekin sortutako abestien bitartez Plateruena dantzan jartzen saiatuko dira. Geroago eta ezaguna-goa egin den Santutxo taldeak, baina, ez dau bakarrik jardungo. Izan be, Revolutionary Brothers Sound System taldeak be emongo dau kontzertua eta Dj Makalak berotuko dau gau giroa kafe antzokian.

ZINE-KLUBA

BERRIZ

» **Zine emanaldia,** maiatzaren 31n, 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

» **‘Espías en la sombra’ pelikula,** ekainaren 4an, 20:30ean, Zugaza Zineman.

ELORRIO

» **Hilean behin.dok: ‘Rembrandt’s J’Accuse’ pelikula,** ekainaren 4an, 19:30ean, Iturri kultur etxean.

ERMUA

» **Umeendako zinema: ‘Superagente 86’ pelikula,** maiatzaren 31n, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.

» **‘Illegal’ pelikula,** ekainaren 4an, 21:30ean, Lobiano kulturgunean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Gran Torino
Zuzendaria: Clint Eastwood
barikua 29: 22:00
zapatua 30: 22:30
domeka 31: 22:30
astelehena 1: 22:00
martitza 2: 20:00

17 otra vez
Zuzendaria: Burr Steers
barikua 29: 19:00
zapatua 30: 19:30
domeka 31: 19:30
astelehena 1: 19:00



Umeendako zinema
Noche en el museo 2
zapatua 30: 17:00
domeka 31: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia
Lejos de la tierra quemada
Zuzendaria: Guillermo Arriaga
zapatua 30: 22:30
domeka 31: 20:00
astelehena 1: 20:00



ZORNOTZA

Zornotza Aretoa
La Duquesa
Zuzendaria: Saul Dibb
zapatua 30: 22:00
domeka 31: 20:00
astelehena 1: 20:00



BOTIKAK

Barikua, 29
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
Zapatua, 30
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Balenziaga / Etxebarria / Campillo / Unamunzaga / Sagastizabal / San Roma / (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)*
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Torresola 4 - Abadiño)
Domeka, 31
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
Astelehena, 1
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
Martitza, 2
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
Eguaztena, 3
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Eguena, 4
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte ..670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565

UDALAK
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
UDALTZAINGOA
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantza 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

15
28° BARIKUA
Eguzkia eta beroa izango doguz hizpide. Hodeiak ia erabat desagertuko dira. Goizean haizea hego-ekialdetik sartuko da eta arratsaldean ipar-ekialdetik. Azken orduetan bero-hodeiak garatuko dira.

18
30° ZAPATUA
Zeruan urdina nagusi izango da eta eguzkipean ibili beharko dogu. Tenperaturak aurreko egunean baino apurren bat gorago igongo dira. Eguneko azken orduetan bero-hodeiak garatuko dira.

17
28° DOMEKA

14
18° ASTELEHENA

12
29° MARTITZENA

Iurreta-Emakumeen XXII. Bira



2009 - Ekainaren 11tik 14ra



IURRETA
ELEIZATEKO
UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Maguregi argazkitegia

KIROLAK >



Durangoko Kulturalak ezin izan du Bizkaiko Kopa irabazi. Aurreikuspenak betez, Getxo nagusitu egin zitzairen Zorrozan jokatuak finalean (4-1). Espero izanagatik, porrota beti da mingarria; hala ere, burua ondo goian dutela bueltatu dira. Badituzte horretarako arrazoiak. Ligan beraiek izan dira Getxori itzala egin dioten bakarrak; horrez gainera, Kopako finala jokatu dute, eta bigarren zatiko une askotan estu hartu zituzten. Finala jokatu baino lehen aurreratu zuten irabazi zein galdu berdin-berdin ospatuko zutela; irabazi balute legez, alegia.

Getxori baloia kentzea oso zaila denez, kontraerasora planteatu zuten partidua. Getxok, ordea, inork espero ez zuen jokamoldea erabili zuen: "Behetik

Irabazi balute legez

beharrean goitik jokatu zuten. Asko harritu gintuen estrategia horrek, gu goitik nahiko ondo moldatzen garelako", dio Eneritz Alkorta jokalaria. Horrela, aurkariak euren bizkarra bila zezaten eragozteko bihurtu zen durangarren helburu nagusia. 15 minututan ondo eutsi zioten, baina aldaratze baten ondoren Getxok aurrea hartu zuen. Atsedenaldira bitartean, beste birritan zulatu zuten durangarren atea.

Galtzeko gutxi eta aurrera

Bigarren zatian goian presionatzea erabaki zuten, partidu fisikoa proposatuz. Kulturalak aulkia jokalaria freskoz beteta zeukan, eta Getxok, aldiz, aldaketarako aukera gutxi zituen. Minutuak joan ahala getxoztarrak gero eta

Lehen zatian erabaki zuen lehia Getxok: 3-0 joan ziren aldageletara

nekatuago zebiltzan. Kulturalak aukera bat baino gehiago izan zuen aldea murrizteko, baina ez zuten jaurtiketetan asmatu.

Halako batean, beste aldaratze bat jasota, Getxok laugarrena sartu zuen. Kulturalaren golak ez zuen ezer aldatu. Azkenean, lagunartea nagusitu zen talde bien artean. Kulturalak beste aukera bati itxaron beharko dio Kopa etxera ekartzeko. ■ J.D.

24 Berrizen 'Lauko Finala' jokatu da

La Salle, Salleko, Santurtzi eta Paules nor baino nor gehiago ariko dira asteburuan Berrizburun Bizkaiko Koparen bila. Bihar finalerdiak jokatu dituzte eta etzi finala.

25 Inoiz baino gehiago: Hirurak bat

Aurten lehenengoz Bizkaiak eta Gipuzkoak ez ezik, Arabak ere beren muge barruan etapa bat izango du Emakumeen Biran: Amurrión hasi eta amaituko dena.

Bizkaiko Kopako 'Lauko Finala' jasoko du Berrizek

Salleko, Paules, La Salle eta Santurtzi lehiatuko dira asteburuan Berrizburu kiroldegian; Tabirako ez da finalerako sailkatu



Santurtzik bost partidu irabazi ditu eta bakarria galdu du sailkapen ligaxkan.

Berriz Saskibaloit Taldeak antolatu eta Udalak lagunduta, Berrizen erabakiko da asteburuan zein den aurtengo Bizkaiko Kopako txapelduna. Bihar jokatuko dira finalerdiak eta etzi finala. Tabirako ez da Lauko Finalean izango. Ligaxka kaskarra osatuta, kanpoan geratu dira.

17:00etan hasiko den lehenengo finalerdiak Salleko eta Paules aurretik aurre jarriko ditu. Sestaoarrak faborito dira ligaxka-ko sei neurketak irabazi dituztelako; Paules Barakaldoko taldeak, berriz, porrot bi jaso ditu.

A.Molina: "Tabirakok ez du Kopako lehiak eskatzen duen motibaziorik erakutsi"

Jarraian, 19:00etan, La Salle eta Santurtziaren arteko bigarren finalerdia jokatuko da. Bilboko taldeak airoso atera ditu ligaxkako partidu guztiak; Santurtzik ere lan txukuna egin eta partidu bakarria galdu du. Tabirakoko entrenatzaile Alberto Molinak uste du La Salle dela finalera pasatzeko eta Kopa irabazteko hautagai nagusia:

"Euren kontra jokatu dugu netan argi utzi dute oso talde indartsua direla".

Tabirakoren lanari dagokionez, ligaxkan partidu bakarria irabazi du. Molinaren iritziz, "mota-bazioa" falta izan zaie: "Justu iritsi gara amaierara, eta ez dugu Kopako lehiak eskatzen duen adinako motibaziorik erakutsi".

Elorrioko Bk urtebete egin du Goren Mailan

Soloarteren kontrako porrotak (8-1) Lehen Erregionalerako bidali du Elorrioko Buskantza B areto futboleko. Iaz igo ziren eta aurtentz jaitzi egin dira. Soloartek kalitate handiko jokalariek batu dituzte, eta Elorriokok ez zuen aukera txikiarik izan.

Mailari eusteko taldea zuen Elorriokok, baina barne funtzionamendua halamoduzkoa izan da. Esaterako, jokalariek batzuk sarritan jokatu dute lehen taldearekin. Horrek eta beste faktore batzuek taldearen dinamikan eragin dute.

Unai Zamalloa
• Saskibaloit entrenatzailea



Azterketa garaia

Aurreko artikulua irekitzen, oraindik be gure kirolak bere zabalkundean aurrera egiteko ezinbestekoak diren pertsonen buruz berba egitea nator: entrenatzaileei buruz.

Gure inguruan hamaikakoz entrenatzaile dabil modu ez profesionalen eskualdeko taldeak entrenatzen. Halan be, azkeneko urteotan entrenatzaile bokazioa galtzen dabilela somatzen hasi gara. Aurpegi barriak geroago eta gertuago ikusten dira, eta betikoek geroago eta gertuago izaten dabe aurrera jarraitzeko.

Horrela, entrenatzaile gazte askorentzat azterketa garaia den momentu honetan nire omenaldi txikia joatzue kolega guztiei, zuen lan eskuzabalak saskibaloia aurrera erango dabilako aurrerantzean be. Eta jokalariek, ikusle eta gurasoei, epaileekiko eskatu neban jarrera bera izan daizuen eskatzen deusuet: errespetatu, txalotu eta ahal den neurrian, gure lana hobetzen lagundu. Denontzat izango da onuragarri.

Azkeneko lehenengo aurreko asteburuan Seu D'Urgellen, Euskal Herriak, Katalunyak, Galiziak eta Kubak jokatutako Nazioarteko Emakumezkoen Txapelketari buruz dira. Bertan, Euskal Selekziozko jokalaririk onena Amaia Mendiola garai izan zen, bai Katalunyen aurkako garaipenean (garaipen handia benetan) bai Kubaren kontrako finalean be. Zorionak, Amaia, zure kirol ibilbideagaitik, eta eskerrik asko jokalariek askoren ispilu izateagaitik!

Zalduak igoera lortu dezake biharko derbian

Bihar, 18:00etan, Anbotopetoren kontra jokatuko dute Durangoko Tabiran

Lehen Erregionalean denboraldiko partidurik garrantzitsuenak jokatuko du Zaldibarko Zalduak saskibaloian. Anbotopetoren kontrako derbia irabaziz gero, maila bat gorago igoko dira; bestela Marrazoak igoko da. Marrazoak taldeak Muskiz azkenaurtekoaren kontra jokatuko du; ez dirudi huts egingo duenik.

Tabirakotik etorritako hiru jokalarirekin taldea indartu ondoren, Zalduak espero zuen goian ibiltzea, baina ez hainbeste.

Denboraldi osoan goiko postuetan borrokan ibili dira eta liga bikaina osatu dute. Igoera lortzen badute, bulegoko lana hasiko da, mailaz igotzeko baliabide eta oinarri ekonomikorik baduten edo ez baloratzen.

Baina lehenengo eta behin biharko partidua irabazi behar dute, eta ez da erraza izango, ez baitago derbi errazik. Gainera, Anbotopetoren ere oso denboraldi ona osatzen ari da. Laugarrenak dira Igoera Fasean.

GALDERA:

Zer txirrindulari bira jokatuko da ekainaren 11tik 14ra?

Izena: _____

Tel.: _____

Makatzeta jaletxerako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Bialdu erantzunak: Santa Ana, 8 Durango edo asteakaria@anboto.org helbideetara. Hilaren azken alean agertuko da irabazlea.



Arrazola - Atxondo
Tel.: 94 658 29 31

Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban jokatuko da Emakumeen Bira

Amurrion hasi eta amaituko den etaparekin azken aurreko urratsa eman dute; datorren urtean, baliteke etaparen bat Nafarroan zehar antolatzea ere



Iaz Marianne Vosek Emakumeen Birako bost etapatik lau irabazi zituen; aurtengo aldian ez du parte hartuko. Kepa Aginako

Ekainaren 11tik 14ra korrituko den XXII. Emakumeen Birak, lehenengoz, Araban hasi eta amaituko den etapa bat izango du. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde histori-koek dute bertan hasi eta ama-itzen den etapa bat, gutxienez. “Azkenaurreko urratsa da”, dio Emamumeen Bira Kirol Elkarteko kide Agus Ruiz Larringanek. Izan ere, datorren urtean Nafarroara zabaltzeko saiakera egingo dute.

ANBOTO astekaria babesle duen Biran 19 talde ariko dira: guztira, 114 txirrindulari. Horieta-tik lau euskaldunak dira: Bizkaia-Durango, Lointec-Ugeruaga, Debarrena-Kirolgi eta Tolosa.

Iaz ia etapa guztiak eta sail- kapen nagusia irabazi zituen Marianne Vosek ez du aurtengo aldian parte hartuko. Fabiana Luperinik (2006) eta Edita Pucinskaitek (2002) badakite Emakumeen Bira irabaztea zer den, eta irteera puntuan egongo dira. Horiekin batera, hainbat txirrindulari gaztek osatzen dute faboritoen zerrenda: Iaz bigarren eta hirugarren amaitu zuten Tatiana Guderzok eta Luise Kellerrek, esaterako. Claudia Haussler ere kontuan hartzeko txirrindularia da.

Hala ere, faboritoen artean faborito da Nicole Cooke; Mun-duko Txapeldun eta Txapeldun

Nicole Cooke
Munduko Txapeldunak
parte hartuko du
aurtengo aldian

Lau talde euskaldun
daude lehian; tartean
Bizkaia-Durango dago

Olinpikoa den galesak lehenen- goz parte hartuko du, eta Ruizek ez dauka zalantzarik Bira bere palmaresera gehitzeko “asmo sendoarekin” etorriko dena.

